



Arg.: Javier Fernandez



Udako festak

uda hau



gozatu



BEASAINGO UDALA



ERROTZEN UDALAK
Instituto municipal del Deporte



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gasteia eta Kirol Departamentua
Departamento de Juventud y Deporte



ANTIZAR
KINOLUZIA

AZKENEKO ETXEBIZITZAK SALGAI LAZKAON



- ✖ 3 LOGELA
- ✖ SUKALDEA
- ✖ EGONGELA
- ✖ 2 BAINUGELA
- ✖ TERRAZA 1 edo 2
- ✖ 17.900.000 pezetatik hasita
- ✖ TRASTELEKUAK eta
- ✖ GARAJEAK ere bai
- ✖ LAZKAO ERDI-ERDIAN

TIBURTZIOENEA, S.L.

Tel.: 943 16 24 72

2000ko UDAN BUKATZEKO PREST DAUDE, MUGI ZAITEZ!

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

Non zer

7 TXANDAKA: Enekoitz Telleria

8-9 IRITZIA: Igartzako burdinola

10 AHOLKUA: Udako gaixotasuntak

11 KATE MOTZEAN: Mari Karmen Elorza

12-13: Seguran turismoa

14: Segurako jaiak

15: Olaberriko jaiak

16-17: Javier Fernandez

18: Mutiloako jaiak

19-29 KRONIKAK

MUTILOA 19: Jaiak. **ZALDIBIA**

20: Alamartxoak. **BEASAIN 21:**

Udako ekintzak. **LEGORRETA**

22: Bizikleta martxa.

ORDIZIA 23: Arlote irratia.

ITSASONDO 24: Oria ibaiaren bideratze lanak.

IDIAZABAL 25:

Argentinaren bisita.

GABIRIA 25: San Joan.

ATAUN 26: Santa Ixabel jaiak.

ORMAIZTEGI 27: Gerarh Barh.

ZEGAMA 27: Aizkorriko

Lagunen jaia. **LAZKAO 28:**

Gerriko sariketa. **SEGURA 29:**

San Joan jaiak

30: KULTURA: Trikitizio musika taldea

31: DEBALDEKO IRAGARKIAK

32-33: AGENDA

34 FOTO ZAHARRA: Olaberriarrak



Adimen urritasuna duten pertsona helduentzat

Eguneko zentroa Itsasondon

Adinaren ondorioz, lanean jarraitzeko zailtasun fisikoak eduki eta psikosozialeko prozesu batean sartu diren minusbaliatu psikikoen beharrak asetzea da Itsasondoko Jardueretako Eguneko zentro berriaren helburua. Orain arte bizi izan duten lan ingurunearekiko haustura gerta ez dadin eta gainbehera atzeratuko dien eta pizgarri gisa jardungo duen laguntza emango zaie bertan. Gureak taldeak 25 urte daramatza adimen urritasuna dutenekin lanean, eta Eguneko zentruarekin, zikloa ixten dela diote bertako arduradunek.

Itsasondon, Gureak Lantegi Babestuetako produkzio-tailerra zegoen lekua egokitu dute jardueretarako eguneko zentro bezala. Donostiako Goyeneche Fundazioaren esku dago zentro honen kudeaketa eta momentuan 7 erabiltzaile baditu ere, 25 hartzeko ahalmena du. Gipuzkoan era honetako bigarren zentroa da Itsasondoko.

Jardueretarako Eguneko zentroa lantokiekiko zerbitzu alternatiboa da.

Pertsona hauei, adinagatik edo eta arazo psikiko eta fisikoengatik erretiratzekeo garaia iristen zaienean, orain arteko ingurunearen hausturarik jasan ez dezaten, eta gainbehera atzera dezaaten, eguna pasatzeko gunea izango dute adimen urrikoek Itsasondon. Beren lankideekin harremana mantentzeko denbora eta espazioa eskainiko zaizkie, eta honela, aisialdiko zereginekin batera, lanerako zentroaren zereginak ere beteko dituzte. Bizi kalitatea areagotzen lagundu nahi zaie, eta familiei laguntza eskaintzea.

Zikloaren amaiera

Eguneko Zentro honen inaugurazioan Gureakeko arduradunek esan zuten, zentro honekin, zikloa itxi egiten da. Gureak duela 25 urte hasi zen pertsona hauekin lanean. Hezkuntzan egin zituen lehen urratsak. Adinez heltzen zihoazen eran, lan mundua finkatu zuten. Orain, adinak barkatzen ez duela eta, erretiroa behar dutenentzat gureak prestatzen ari da.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierriarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Erredakzio Batzordea:** Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aimar Maiz, Laida Oiarbide, Inko Mujika, Iñaki Ugalde, Nagore Etxeberria, Zorion Insausti eta Enekoitz Telleria.

Fotokonposizio eta maketazioa: **GOIERRITARRA.** Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.000 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



*Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria*

'Egizu 100 metro euskal presoen eskubideen alde' martxa uztailaren 2an

Senideak elkarteak eta Euskal Herri osoko beste 60 plataformek (tartean Lazkao, Zaldibia eta Ordiziako herri ekimenak daude), 'Egizu ehun metro euskal presoen eskubideen alde. Egizu ehun metro zure hitzaren defentsan' lelopean martxa antolatu dute, ekainaren 17tik uztailaren 28ra bitartean, eta Euskal Herri osoa zeharkatuko du. Goierriara uztailaren 2an iritsiko da martxa. Ataundik barrena sartuko da. Ordutegiak:

Ataunen, 10:30etik 12:00etara ibiliko da; Lazkaon 13:00etatik 14:00etara; Itsasondon 17:00etatik 17:30era; Ordizian 17:30etik 19:00etara eta Beasainen, 19:00etatik 20:00etara. Beasainen, eskualdeko ekitaldia egingo da, San Martin plazan.



Mikel Zumarraga

Iazko ekainean libre gelditu zen Mikel Zumarraga Ormaiztegi-ko preso, beste bi presorekin batera, zigorraren hiru laurdenak beteta zituela eta, Iruñeko espetxe zaintzako epaileak hala erabakita. Fiskalak erabaki horren aurka-ko errekurtsioa aurkeztu zuen eta orain

Iruñeko Entzute-3. Aretoak errekurtsioa onartu egin dute. Beraz, espetxera itzultzeko arriskuan dago Zumarraga. Ormaiztegin, firma bilketa egiten ari dira horrelakorik gerta ez dadin eskatzeko.



Eneritz Eskisabel eta Gorka Eskalante: Udan Chiapas eta Eritreara lanera

Uztailaren 7an, bi beasaindar gazte, Eneritz Eskisabel eta Gorka Eskalante, Chiapas eta Eritreara joango dira, abian dauden proiektu desberdinetan lan egitera. Donostiako Elizbarrutiko 16 gazte doaz, herrialde haietako errealitatea ezagutu nahian.

Eneritz Chiapasera joango da, osasuna, hezkuntza, jantzigintza eta nekazaritza alorreko prestakuntza proiektuan hartuko du parte.

Gorka Eritreara joatekotan da, nahiz eta Eritrean gerran daudenez, ziurtasunik ez duen iritsiko ote den. Adreilu eta zementuzko eskola bat eraikitzen laguntzera joango da.

Herrialde txiro horietara materiala eta dirua eraman nahi dute eta horretarako bilketak egiten ari dira. Batetik, haurrentzako bolaluma, koaderno, globoak... Beasaingo Mirentxu eta Artano liburudendetan, Begiristain kopiak-en eta Centro Cien dendan dauden kaxetan utz daitezke. Bestetik, dirua. Kutxako kontu korronte honetan sar daiteke borondatea: 2101 0001 11 0123059222.

Ekainaren 30an azkenik, Beasaingo plaza azpian, afaria egingo da. Talde afrikar bat eta bertsolariak arituko dira giroa alaitzen.

Edozein informaziorako hona hemen bi telefono: 610913585 (Gorka) eta 943 884394 (Eneritz).



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Literatura



'Gatibu sortu nintzen': Antton Garcia del Molino preso ohiari buruzko liburua

Ordiziako Antton Garcia del Molino preso ohiaren bizitzan oinarritua dagoen liburua aurkeztu zen ekainaren 14an Ordiziako Barrena kultur etxean. Palentzian preso dagoen Jokin Urainek idatzia da liburua, Susa argitaletxearen eskutik.

Aurkezpenean Jose Luis Otamendi, Antton Garcia del Molino bera eta Gorka Arrese izan ziren. Bertan Jokin Urainen eskutitza irakurri zuten. Liburuaren egileak dienez, Anttoni 36ko gerran umea zela entzun zionean, mingainetik tiraka ha-

si zitzaion, apunteak hartuz. Honela Anttonen bi-ziaren kronika egin du, mende bateko kronika. Anttonekin izandako el-karrizketa luzeen ondo-rengo testigantza liburua dela dio egileak, ez bio-grafia.

"Ez dut uste nere bizi-tzak liburua merezi due-nik. Baina Jokin Urainek hala uste zuen. Nik inoiz ez dut nabarmentzea gus-toko izan, nahiago dut oharkabea pasatzea", esan zuen Anttonek. Eta bide batez bere bizitzako hainbat pasarte kontatu zituen.

Tere Irastorza: 'Izen gabe, direnak. Haurdunaldi beteko khantoriak'

Idazle zaldibitarak 'Izen gabe, direnak. Haurdunaldi beteko khantoriak' liburua aurkeztu zuen ekainaren 6an. Liburu honek sormena du hizpide. Sormen naturala (haurdunaldi aurrekoa, haurdunaldi garaikoa eta ondorengo) eta sormen kultural eta poetikoa bateratzen ditu. Haurdunaldi garaian idatzi zituen poemak bildu ditu lan berri honetan eta hiru ataletan banatu du liburua.

Lorea Agirre: Rosa Luxemburgen biografia

Ekainaren 9an aurkeztu zuen Beasaingo Lorea Agirre kazetariak, Rosa Luxemburg iraultzaile poloniarri buruzko biografia, Elkarlanean argitaletxearen 'Biografiak' sailaren barruan.

Kirola

Izetatarren markak Beasainen

Beasaingo jaien barruan, Joxe Ramon Iruretagoienak, 'Izeta II.'-ak eta bere seme Odeik, 'Izeta IV.'-ak, marka ahalegina egitekoak ziren eta azkenean, ahalegina gauzatu zuten. Izeta II.ak bi marka egin zituen: 100 kiloko zilindrikoari 21 jasoaldi eman zizkion minutu bakar batean, harria jartzeko laguntzailerik gabe. Harri kubikoarekin ere lan berdina egin zuen eta 14 jasoaldi eman zizkion. Izeta IV.ak, 100 kiloko harri kubikoari, bost minutuko txanda batean, 19 jasoaldi eman zizkion.

Herri-kirol jaialdi berean, Gipuzkoako finala jokatu zuten trontzalariek. Joxe Gabirondo eta Aitor Esnaola nagusitu zitzaizkien, Orbegozo lehengusuei. Hirugarrenak Izetatarrek izan ziren.

Beasaingo Ikastolaren Rallysprinta

Israel de Pedrok irabazi zuen Mitsubishi autoarekin. Jon Agirre ari zen nagusitzen, baina, azken unean zulatu ondoren bigarren geratu zen. Irteera hartu zuten 51 gidarietatik 32k amaitu zuten, berro eta ikusle ugariak protagonista izan ziren egunean.

IDIAZABALEN TXALET ADOSATUAK ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN



- 3 logela.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza, lorategia.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

686 414 901 - 943 450 721

Txakur jabeak sentsibilizatzeko kanpaina Beasainen

Beasaingo Udala txakur jabeak dituzten betebeharrei buruz sentsibilizatzeko kanpaina jarri du martxan. Herritarren arteko elkarbizitza hobetzea da helburu, kexa asko jasotzen baitira gai honen inguruan udaletxean.

Txakur jabeek foiletoak banatuko zaizkie, lau puntu gogoraraziz: batetik, txakurrak zentsatzea beharrezkoa dela; txakurrak kalean lokarriarekin lotuta ibili behar direla; jolasguneetan ezin direla sartu eta txakurrak egiten dituen kaka jaso egin behar direla.

Kanpainan zehar datu objetibo eta sistematikoak bildu nahi dira eta horretarako bi pertsona kontratu ditu Udalak, besteak beste, txakur jabeen ohituren berri jaso, arazoak zeintzuk diren bildu, mikrotxipak irakurri eta foiletoak banatzeko. Mikrotxiparen irakurketarekin txakurren zentsoa eguneratu nahi da. Beasainen 608 txakur daude zentsatuta.

Beasainen txakurrak kaka botatzeko zakar ontzi bereziak jarriko dira. Goerriak izango dira eta txakurra agertzen den pegatina bat izango du, adierazgarri gisa. Era berean, txakur kaka biltzeko zorroak banatuko ditu Udalak, dohai-nik, era erasoan kaka bildu eta zakarrontzira bota ditzaten. Zorro hauek, udaletxean bertan jaso daitezke eta kanpainaren jarraipena egingo duten bi pertsona horiek ere banatuko dituzte.



Gune debekatuak

Udaleko ordezkarien esanetan, txakurren kake kalte handiak eragiten dituzte lorategietan. Gauzak honela, Gernika Pasealekuko, Urbialde plazako eta Iturrioz kaleko 12, 14 eta 16. zenbakien atzealdeko lorategietan ezin izango dira txakurrak ibili.

Beasaingo Udalekoek gogorarazi nahi duten, animaliak ez direla jostailuak. Urtean 25-30 txakur jasotzen omen dituzte, kalean.

Azkenik, katu eta ahateekin ere arazoak gehitzen ari omen dira herrian. Animalia hauei botatzen zaie jan hon-darretatik arratoiak sortzen ari baitira.

'Bai Euskarari' ziurtagiria

Ekainaren 13an 425 erakunde edo gizarte eragilek jaso zuten 'Bai Euskarari' ziurtagiria. Euskararen aldeko konpromisoan tinko ariko direla azaldu dute, ziurtagiria jaso dutenak. Goierriren kasuan jaso dutenak hauek dira: Goierri Lanbide Eskola, Segura Irratia, Maizpide Euskaltegia eta Artzai Gazta Kooperatiba.

AEK-ren udako ikastaroak

AEK euskaltegitik jakitera eman digutenez, uztailako 4 asteko ikastaroak ekainaren 26an hasiko dira eta 3 astekoak, uztailaren 3an. Iraileko ikastaroak, berri-z, 4an hasiko dira. Matrikula egin nahi duenak, AEK-ko euskalte-gietan du izena emateko aukera (943 889340).

Beasaingo Liburutegia goizetan bakarrik irekita

Irailaren 15era arte, Beasaingo biblioteka, goizetan bakarrik egongo da irekita: 9:00etatik 13:30ak arte.

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-AK eta abar
✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55



LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO



EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9
☎ 943 88 94 82
BEASAIN



VOLVO

TOYOTA

 **ŠKODA**
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Iban
Urdangarin

San Joan

Urteko gaurik motzena dugu gure San Joan bezpera Astoa hartu, goazen guztiok egur pila bat biltzera iluntze lagun suaren txingar jendearen ibilera Ze mesedea egiten digun konturatutzen al gera sorginak ere erretzen ditu liburuekin batera.

Su bero batek alaitzen digu gau ilunaren dizdira trikitixa ta panderoa joz zer nolako ikusmira famili dena mahai batean gar indartsuei begira Euskal Herriko jendeak duen itxaropenaren mira Nahiago nuke arazo denak, bertan erreko balira.

Futboleko tabernan hitzordua

Rotonda eta saihesbideen Segurako festetan, turismoaz jan eta etxebizitza adosatuetan bizi nahi omen duen Segurako festetan, atari guztiak, hutsik egin gabe, elorri zuri gurutzez eta larrosaz apainduta San Joan egunean. Herri baten xarma: kontrastea.

Ez da aurtengoan ere tiropitxoirik izango ordea. Ez karta pornorik, ez txurriano txiskerorik —petardoak pizteko erabiltzen genituen soka laranja fosforitodun haiek— ezta Sidra el Gaitero botelatzorik ere —gure lehenengo alkohol zurrutada serioa—. Jarri zarete pentsatzen ez dela Segurako festetan joan deneko aspaldiko urteetan *barrakarik* izan? “Yo soy un italiano” musika besterik jartzen ez zekien balantze zaharkitu hura uste dut izan zela azkena. Kale Nagusiko bizilagunek ongi dakite (dakigu) abesti haren berri. Halabeharrez, nazionalitatez aldatu genuen lehenengo eta azken uda izan zen. Geroztik ez da barrakarik izan Seguran, nahiz eta *CC catch*-en musika faltan somatzen den zenbaitetan.

Festa bereziak direla esatera nihoan, baina norentzat ez dira bereziak bakoitzaren herriko festak? Badute, hala ere, beste guztiez haruntzago *desmadre* puntu bat. Selektibitatean itota ibili denak, ESO, UBI edo dena delakoen errekonstruzioetan, karrerako azken azterketan dabilenak gelaren zuloatik irten eta orduan ikusi ohi du argia. Guztiak atera dituenak ospatzeko aukera dauka —“Pentsa, horrelakoa izan behar du nire uda guztia hemendik aurrera” dio bere baitan— Alerik ere aprobatu ez duenak, bere penak itotzeko aukera dauka —“Pentsa, horrelakoa izan behar du nire uda guztia hemendik aurrera” dio hark ere bere baitan—.

Urteroko programaz haruntzago —aurtengo eskuliburutxoari eman begirada bat, argazki bakar bat sartu gabe programa berezi bat lortu duen artista baita Joxemari Telleria—, badira bixitarietara gomendatzeko moduko ekitaldiak. Bata, txarangarik dagoen egun bakoitzeko, plazako musika bukatu bezain pronto egiten den kalejira inprobisatua. Garaizago oheratu direnei leiho zirrikituetatik nor nori helduta doan ikusteko aukera ere ematen du. Bestea, iaz berriro berreskuratu genuen futboleko taberna. Azken erratu guztien bilgune goizeko orduko txikieta. “Hi aurtan ba al tzeok kantzontzillo karreraik?”



Enekoitz Telleria

IDIAZABALEN APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZAK ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN

- 1 eta 2 logelakoak.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- Garajeak igogailu zerbitzuarekin. 1,4 miloitik aurrera.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

686 414 901 - 943 450 721

Igartzako burdinola berreraiki egin behar litzateke

Ekainaren 11n, Loinatz zortziurrenean, eguerdian, Igartzaz egindako diaporama estrinatu zen Igartzako jauregian. 11 minutuko diapositiba-emanaldia, hitzez eta musikaz hornitu eta sinkronizatuta. Argazki ederak, esamolde egokiak eta musika ederra, oro har, laburbilduma polita minutu batzuetan mende batzuetako kontuak gogora ekartzeko. Beharbada, gogoeta osoa izateko, bilakaera horrek ekarri dizkigun betekadak, arazoak eta kalteak dira falta diren bakarrak, baina tira, horrelakoetan ikuspegi baikor hutsa ematea izan ohi da helburu eta betoz azterlan sakonagoak lan sakonagoen bidez bestelakoak azaltzeko. Diaporama euskaraz eta espainieraz grabatuta dago eta emanaldiak ere halaxe dira. Bertako enpresek lagundua izan da ekimen hori.

Alkate jn.ak estrinaldian esan zuen moduan, Igartzaz, Beasain bera baino ezagunagoa izana da (XVI. mendean



Igartzako burdinola 1615eko azaroaren 2an.

adibidez) eta gaur egun jauregia, errota eta inguruko gainerako elementu guztiak berreskuratu eta jendeari agerian jartzeak, garrantzi handia du beasaindarrentzat eta kanpotik ikustera etor daitezkeen guztientzat.

Alabaina, egun horretan bertan begiztatu nuenez, jauregiaren beheko aldea egokitu samar dago horrelako ekitaldietarako, baina goiko oinanean oraindik ere lan handiak egin beharra dago edo-

zertarako erabili ahal izateko. Itxaro dezagun lan horiek denak berandu baino lehen egitea.

Bestalde, alboan du Errota, alboan aldaparoa. Uharkaren paretak (zaharra eta berria) deseginak daude tamalez (desegin behar ez zirenak nire ustez). Errota aldiz, lanean aritzeko moduan gordeta dago eta hori oso interesgarria da, izan ere, duela 40 bat urterarte hala aritua baita.

Bada ordea errotaren alboan, Igartzan ardatz izan zen beste gauza bat: burdinola. Gaur egun, Indar enpresa zaharrak egindako zabalkuntzaren ondorioz, beheko zimenduak eta Oria ibairantz zituen ur-irteeren arkuak baik ez daude, baina nire iritziz, Igartzak bere benetako zentzua eta itxura izateko, burdinola berreraiki eta tarte-lanean jarri behar litzateke. Mirandaolako Patrizio Etcheberria zenak egokitu zuen, Agorregikoa Gipuzkoako Foru Diputazioak eta nik ez dut zutik dagoen besterik ezagutzen. Igartzakoa izan behar luke hirugarrena.

Diotenez, garai haietako garrantzitsuenetakoa izan zen Igartzako burdinola. XIX. mendearen erdialdera utzi zion lan egiteari eta XX. mendearen erdialdera suntsitu zitzaizkion atal nagusiak. XXI. mendearen hasiera, oso garai egokia izan daiteke behar den bezala berreraiki eta abian jartzeko. Ez da hain zaila, marrazkiak badaude,

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

LORADENDA


Martxoaren 1etik aurrera berritua

ZABALIK
Amaiares eskutik

Ezteiak, zentroak, elizkizunetarako koroak, lore lehorrak, balkoiak...

Lili

Zaldizurreta 3 behe, Beasain ☎ 943 888149



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

beste burdinolak hor daude, hainbat plano ere bada hortik zehar. Eraikuntza gaur egun oso erraz egin daiteke dagokion material egokiarekin (dagokion harri-motarekin alegia). Burdinazko makineria egitea edo lortzea ere, ez da miraria interneten garaian. Beraz, ausardia baizik ez da falta. Ausardia eta orain inguru horretan egitekoak diren etxe eta kaleen artean metro karratu batzuk horretarako uztea, horretarako borondaterik baldin bada.

Diru-arloan berriz, 225 milioi pezeta belar artifizialdun futbol-zelai berri bat egiteko mahaian jarri badira eta 1999an, Beasaingo Udalak, agian 100 milioitik gorako soberakinak izan baditu, dirua gastatzeko premia eta proiektu gehiago ere izango diren arren, ez du oso zaila izan behar Igartzan burdinola koskor bat berreraikitzeak. Gainera, proiektu horri, Foru Diputazioak, Eusko Jaurlari-



Igartzako burdinolaren gaur egungo hondarrak.

tzak eta Europako fondoez ere laguntza eman beharko liokete. Beasaingo enpresek eta Goierrikoek ere, agian zerbait jarri beharko lukete beren aitzindari izan zena jasotzeko. Beraz, denen artean, finantzaketa ez litzateke hain zaila izango. Nik behintzat, zerbaitetan gastatzekotan, ondo ikusiko nuke horretan gastatzea, eta proiektu hori, geure historia maite badugu,


egin beharrekotzat jotzen dut.

Dena dela, ni ez naiz gai horietan adituegia eta gogo onez jakingo nuke aditu direnek zer iritzi duten. Adibidez, indusketan aritu diren Aranzadi elkarteak, Joxan Mujika eta Mertxe Urteaga herriar arkeologoen, Joxe Zufiarre etnologoak eta gisako beste pertsona jantzi batzuek. Udaleko agintariei,

gaiaz benetan dakitenen iritzia bildu eta ausardia eskatzen diet Igartzako burdinola berreraiki eta martxan jartzeko. Orduan bai, orduan izango luke Igartzak benetako osotasuna eta antzina zer izan zen ikusi ahal izango genuke, bai guk eta baita ikustera datozenek ere, bai orain eta baita gure ondorengoek ere. Orduan irabaziko luke noski ospea. Tamala litzateke burdinola berreraikia kokatu beharreko orubea, espaloi, errepede, etxe edo beste edozein hiri-altzarik betetzea; beasaindarron desohorea izango litzateke, egin behar genuena, egin behar genuen garaian ez egiteagatik. Historiako une batzuek bereziak izaten dira, eta une hau, Igartzarako, hala da.

Beraz, ausardia eta aurrea. Nik jarri dut lehen harria. Ea beste norbaitzuk ondorengoak jartzen dituzten.

Andoni Sarriegi Eskisabel



**ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
ETXERAKO ZERBITZUA**

Pizzak, Pasta, Sandwich-ak,
Plater Konbinatuak, Ogitarkeak...

Zaldizurreta, 7 BEASAIN ☎ 943 889 844

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

AMEB



Sagardotegia

Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Sagardotegiko menua
- * Asteburuko menu bereziak
- * SAGARDOA TXOTXETIK
- * Karta zerbitzua
- * Plater konbinatuak

Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarkeo, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*



Zorion Insausti

Oreka dietetika zentrua

Udan hainbat ezbehar gertatzen dira osasun mailan, denak aipatzea ezinezkoa da, baina hauek izango lirateke nagusienak:

✕ **Buztina:** belar-dendetan lehortuta saltzen da. Erabili behar duguna urarekin nahasten da, lokatz forma hartuz. Kristalezko ontzi batean nahasten da. Ondoren kapa fin bat jartzen da nahi dugun lekuan 30 minutuan. Egokia da azalaren itxura hobetzeko eta azaleko edozein gaitzentzat (granoak, handituta izatea, gorritasunak, azkura, intsektuek eragindako sumindura, eta abar).

✕ **Hiperiko:** kristalezko frasko bat hiperiko lorez erdiraino bete eta ondoren oliba olio goraino bete. Eguzkitan (leihoan edo balkoian) 40 egun edukitzen da, noiz behinka mugituz. Ondoren iragazi eta kristalezko ontzi batean gorde. Olio honek kolore gorrizka hartzen du eta eguzkiaren erredurentzat oso ona da.

✕ **Kalendula:** hiperiko olio bezala egiten da eta azalaren gaitzentzat oso ona da. Buztinaren antzera.

✕ **Sahatsa:** zuhaitz honen azala (4 koilaratxokada) uretan 10 minutuan irakiten da, ondoren iragaziz. Sukarra eta buruko minarentzat ona da. Zuhaitz honetatik aspirina asmatu zen.

✕ **Azalarentzat onak:** Gariaren muina (4 goilaratxokada likidorekin nahastuz eguneko), gargaardoaren gurina (4 goilaratxokada likidorekin nahastuz eguneko), gari muinaren olioia (4 perla eguneko), gardaberaren infusioa (3 infusio eguneko).

✕ **Aurpegiko azalarentzat:** buztina azeri buztanaren infusioarekin nahasten da kristalezko ontzi batean. Ondoren aurpegian jartzen da kapa fin bat 20-30 minututan zehar.

Kontuan eduki udan izerdiaren bidez ur asko galtzen dela, horrela, egokiena egunero 2 litro ur edatea da. Jan orduetan ur oso gutxi edan behar da, bestela digestioa zaildu egiten da.

Lehiaketa

Galdera

Nork idatzi du 'Gatibu sortu nintzen' liburua?

Erantzuna uztailearen 3rako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria 'Gatibu sortu nintzen' liburua eta GOIERRITARRA-ren kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: XXIV. edizioa.

Irabazlea:
Jaione Aldasoro
(Idiazabal)

Olagi Sagardotegia



Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
© 943 88 77 26 ALTZAGA

Boni-etxe
igeltseritza orokorra

© 616 921 502 Oriako pasealekua, 12 BEASAIN

Pottoka
KAFETEGIA



Legazpi kalea, 3 ORDIZIA

- Pintxoak aukeran
- Ogiltartekoak

GUREA
JANARIAK



GAZTAK
BABARRUNAK
ARRRAUTZAK

☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Atiber etxea
MUTILOA

Euskara txukunean

Gehiago/Handiago

Nola esan behar da *hotz gehiago* ala *hotz handiago*? Bada, *hotz handiago*, jakina. *Hotz gehiago* esatea ez da zuzena.

Eta zergatik

Bada, badira hitzak, konzeptuak, neurtu ditzazkegunak, adibidez, *Bost liburu erosi ditut, baina liburu gehiago erosteko asmoa dut. Jostailu asko/jostailu gehiago, kotxe asko/kotxe gehiago.*

Baina beste hitz batzuekin ez dugu horrela jokatzeko, ez ditugu horrela erabiltzen, adibidez, *hotza, beroa, indarra, gogo...* **Hotz handia egiten du, baina atzo handiagoa esan ohi dugu, indar handia/indar handiagoa, gogo handia/gogo handiagoa...**

Halere, zuetako askok eta askok, hauek guztiak ondo erabiliko dituzue, naiz eta ez jakin zergatik esaten duzuen horrela.

Maizpide Euskaltegia



N-1 errepidea, lurre auzoa
© 943 88 43 01 OLABERRIA

JUANKAR

- ✱ Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- ✱ Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 639 96 28 50
San Inazio, 42-2. ez. LEGAZPI

Mikrofonoak zer sortzen du?

Zirrara. Nahiz eta urte askoan aritu lan honetan, ez zara ohitzen.

Zein irratsaio mota duzu gustokoena?

Jendearekin, entzuleekin, harremantartean jartzen zaituena.

Eta gorrotogarriena?

Ez dut gorroto dudana irratsaierik.

Eman duzun albisterik pozgarriena?

Ordiziako gazta txapelketa ematen ari ginela, Felix Goiburu segurarrak irabazi zuela entzuteak eta adierazteak poz handia eman zidan.

Eta tristeena?

Irratiko sortzailea, Don Zesareo hil zela adieraztea.

Segura Irratiak zer eman dizu?

Lanbidetik aparte jende askorekin harremana.

Irratia entzuteko leku eta momentu egokiak?

Edozein leku eta momentu da egokia.

Liburu bat:

'El tercer ojo', L. Rampa.

Musika talde bat:

Benito Lertxundi.

San Joanak ala Aste Santua?

Biak. Ez dauka zer ikusirik bata bestearekin.

Dirua ala osasuna?

Osasuna, dudarik gabe.

Amets bat?

Gure ondorengoek ere Segura Irratia bizirik ikus dezatela.



**Mari Karmen
Elorza**

**Segura Irratiko
esataria**



KENDU S. Coop. Ltda.

San Joan jai zoriontsuak denoi!

**Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan**

**Industrialdea, z/g
SEGURA**

☎ 943 80 13 40
Faxa: 943 80 19 05

Josune Arrondo, Segurako Udaleko turismo teknikaria:

"Segura altxor bat da"

San Joan jaiak aprobetxatuz, aukera ona da Segurara gerturatu eta herria ezagutzeko. Ertaroko herria izaki, historia eta arte aldetik zer ikusi eta zer ikasi asko dago. 'Segura, hiribildu guztia museo bat' lelopean, turismoa erakarri nahian dabilta segurarrak, turismoaren aldeko apustua egin baitute. Josune Arrondo, Segurako Udaleko turismo teknikariarekin izan gara. Uda honetarako plana aurkeztu digu segurarrak: Seguran geldialditxo bat egitea.

'Segura, hiribildu guztia museo bat'. Lelo horrekin argitaratu dute segurarrak turismo gida. Leloaren arrazoia azaldu digu Josune Arrondok. "Segura Erdi Aroko hiribildu bat da, jendeak jakin dezala bere kaleetan zehar ibiltzea museo batean ibiltzea bezalaxe dela. Segura kanpotik da museoa". Monumentu multzoa izendaturik dagoen herria da Segura.

Besteak beste, Ama Jasokundearen Eliza, Sorkundetar konbentua, Gebara jauregia, Sarrerako 5 ateak, Ardiarra etxea eta Lardizabal jauregia ikus daitezke. Hiri-gune historiko artistikoan zehar bisita gidatuak egin dai-

tezke, historia, bitxikeria, artea... gertutik ezagutzeko. Inguruko 50 bat zuhaitz eta zuhaixken erakusketa ere ikusgai dago.

Hori guztia eta beste zer-bait gehiago ikusi eta ikasi nahi izanez gero, turismo bulegoa aste osoan zehar egon ohi da irekita. Astelehenetik ostiralera, 8,30etatik 2,30etara, Udaletxean; eta astebukarera, udan eta jai egunetan Kultur etxean, 11,30etatik 1,30etara eta 4,30etatik 6,30etara. Edozein informazioarako 943801006 telefonoa daukazu.

Non lo egin eta non bazkaldu dezakeen ere azaltzen



Josune Arrondo, Segurako Udaleko turismo teknikaria.

da gidan. Aterpetxea 12ko taldeentzat irekita dago, eta Aste Santutik hona Ondarre nekazalturismoa. Bi jatetxe ere baditu Segurak, 90 pertsonentzako lekuarekin.

Harrera ona

Promozio lan handia egiten ari dira segurarrak. Turismo azoketan foiletoak banatu dituzte eta emaitzak jasotzen ari dira piskanaka. Madril, Valentzia eta Katalunia aldetik turistak piskanaka badatoz ere, bisitari gehienak

Euskal Herrikoak dira. Ikasleak, jubilatutak, EPAkoak (Helduen Heziketakoak), lantegietako taldeak... asko etortzen dira. "Etortzen den jendeak badaki zertara datorren. Kultura handi samarrek jendea etortzen da batez ere. Ikastera etortzen dira gehienak. Gustura joaten dira", dio Josune Arrondok.

Turismo azoketara hurbiltzen diren gehienek, naturari eta nekazalturismoari buruzko informazioa bilatzen omen dute.

URRIPE HERRIKOA

Preso eta errefuxiatuekin

☎ 943 80 10 02 **SEGURA**

KALITATEKO
EUSKAL OKELA

EROSLE GOIKO

Zurbano, 8 ☎ 943 800 326 **SEGURA**

ONDARRE
NEKAZALTURISMOA
☎ 943 801 664 ☎

OTATZA DOLARE SAGARDOTEGIA

Uda garaian erretegi moduan ere zabalik, terraza eta guzti

Zatoz probatzera!

Astegunetan eguerdian itxita, astelehenetik asteazkenera itxita, hauetan enkarguz irekitzen da.

☎ 943 80 17 57 **ZERAIN**

Hiriburuetan egun batzuk pasatzen dauden turistak gero eta gehiago etortzen dira. "Garbi dago, Segurara datorrenak inguruko herriak ere ikusten dituela", dio segurarrak. Asteburu pasa etortzen direnak gazteak izaten dira batez ere, edo familiak haur txikiekin.

Dena den, normalean egun erdi edo egun bateko turistekin lan egiten dute. Orain ireki berria duten nekazaturismo etxearekin jendea piskanaka asteburua pasatzera omen dator. "Orain arte ez geneukan azpiegitura onik behar bezalako harrera emateko. Lo egiteko lekuri ez zeukatelako ezin izaten ziren hemen gelditu. Orain Ondarre nekazaturismoarekin jendea bertan gelditzea ari gara lortzen. % 80-90ean dabil nekazaturismoa. Uztailan bigarren hamabostaldian esaterako, Canariastik dator jendea".

Dena den, Seguran argi daukate, ez dutela gehiegizko kanpotarrik nahi. "Guk zenbat jende datorren jakitea nahi dugu, eta zer nolako jendea etortzea nahi dugun".

Sinistu beharra

Turismoaren aldeko apustua egin du Segurak. "Segura historia eta arte aldetik piska bat ezagutzen dugunok, badakigu Segura altxor bat dela. Turismo aldetik probetxua atera dezakegula badakigu. Udalak ere sinisten du turismo aldetik etekinak atera daitezkeela".

Herritarrek ere konturatzen ari omen dira zer nolako herrian bizi diren. "Guk askotan, egunero ikusten ditugun gauzak ez ditugu baloratzen. Bisita gidatuak egiten ditugunean eta herritarrek kanpotar asko etortzen direla ikusten denean, kanpotarren interes horrek herritarroi daukaguna baloratzen



laguntzen digu", aitortu du turismo teknikariak.

Proiektu eta ideia asko dituzte Seguran, baina ohi bezala, dirua behar. "Denbora-ekin egin beharko dira. Laguntzak oso gutxi daude. Laguntzak emateko ere, herri bat baino gehiago biltzen dituen proiektuak nahi dituzte, edo eskualdekakoak. Baina askotan ez da erraza: erritmo eta interes ezberdinak egon baidaitzke".

Herritarren promozioa

San Joan jaietan murgildurik daude segurarrak egun haue-tan baina jaiak pasatu ondorenerako lantxo bat jarriko die Udalak segurarei: herritar guztiak, herriaren berrie-maile onenak izateko asmoz, doazen lekura doazela, 'Segura, hiribildu guztia museo bat' lemapean atera duten turismo gida berria zabaltzea, herriak eskaintzen duenaren berri emanez.

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN



SEGURA

SEGURAKO UDALAK,
San Joan Jaiak gurekin
ospatzera eta bide batez,

"Segura, hiribildu guztia
museo bat"

lemapean, eskaintza turistiko
ezberdinak ezagutzera
gonbidatzen zaituzte.

Sanjoanak Seguran

Ekainak 23, ostirala:

San Joan bezpera.

16:00etan: XLIII. San Joan txirrindulari proba (afizionatuak).

19:30ean: Segurako Txistularien alardea.

20:00etan: Mozorroak.

23:00etan: San Joan sua, txistulariak eta dantzariak.

23:30ean: Joselu Anaiak.

00:30ean: Mozorroa aukatuei sari banatzea.

Ekainak 24, larunbata:

San Joan eguna:

09:45ean: 'Segurako alborda' Kriseilu taldeko txistulariekin.

10:15ean: Alkate doinuaz elizara bidean.

10:30ean: San Joan Prozesioa eta Meza nagusia.

Ondoren: Hamaiketako herriarrentzat plazan. Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin. Herriko abesbatzak 'Segurako Alborada' abestuko du. San Joan egoitzara bisita.

Egun osoz: Kilkir txaranga kaleetan zehar.

12:00etatik 14:00etara eta



17:00etatik 20:00etara: Tren berezia herrian zehar.

13:00etan: Herri-kirolak plazan, herriko gazteak helduen aurka: trontzan, txinga eramaten, korrikan, koskol biltzen eta lau kana erdiko lana aizkoran. Bertsolariak plazan, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.

15:00etan: Herriko plazan koadrilen arteko bazkaria.

18:00etan: Bihar txotxongilo taldearen 'Adar bakar urdina' ikuskizuna, plazan.

18:30ean: Afizionatuen pilota partidak: Leitza-Albizuri Saralegi-Etxeberriaren aurka; Hombre-Begino Cas-

tellanos-Mendiluzeren aurka.

20:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

23:30ean: Alaitz eta Maider.



Ekainak 25, igandea:

San Joan Bigarrena:

10:30ean: Kriseilu Txistulari taldearekin kalejira.

11:00etan: Meza eta Korpusko Prozesioa.

12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara: Pista Librea Baratze pilotalekuan.

13:00etan: Toka, igel, bote jokoak Atsedenen.

13:00etan: Toka txapelketa herrikoia plazan.

18:00etan: Herriko plazan jokoak 'Telmah' taldearekin.

18:30ean: Afizionatuen pilota partidak Baratze pilotalekuan: 3. eta 4. sarien sailkapena eta finala.

19:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

20:00etan: Poteo elegantea.

20:00etatik 22:00etara eta 23:30etik 01:00era: Imuntzo eta Beloki trikitilari taldea.


amatriain
f r u t a k

Jai zoriontsuak denoi!

Tel.: 943 80 11 77
Zurbano kalea 22, behea
SEGURA

IMAZ Jatetxea

- ◆ Eguneroko bazkariak
- ◆ Karta

Kale Nagusia, 27

☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77

SEGURA

ANTONKALE
EDARITEGIA

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!

San Joan jaiak Olaberrian

Ekainak 23, ostirala:

10:30etan: Trena: Iurre auzo-ko parketik aterako da; jarraian, Errekalde auzora joango da jendea biltzera.

11:00etan: Haur eta gazteen-tzako jokoak, herriko plazan.

12:00etan: Puzgarrien jolas parkea martxan jarriko da.

12:30etan: Hainbat jolas zezen txiki, poni eta beste zenbait abereekin.

13:30etan: Udalak haurrei eskainitako bazkaria.

14:30etan: Arratsalde osoan jolas parkea eta tailerrak.

19:00etan: Buruhandiak eta txistulariak.

19:30etan: Loreen bedeinkapena.

20:00etan: San Joan zuhaitzaren igoketa.

21:00etan: Parrillada.

22:30etan: San Joan sua eta Oin-Arin dantza taldea.



23:30etan: Euskal Dantza garaikide saioa: Aukeran.

Ekainak 24, larunbata:

09:30an: Probintzi mailako bola txapelketa.

10:00etan: Goizeresia, Idiazabalgo txistulariekin.

10:45etan: Txirrindulari probaren hasiera: XI. Gipuzkoa-ko Itzulia.

11:00etan: Probintzia mailako plater hausketa.

11:30etan: Gazteen mailako II. Pelota txapelketa.

12:30etan: Txirrindulari probaren amaiera.

17:00etan: Haurrentzako jolasak.

18:00etan: Antzar Gazteak txaranga.

18:30etan: Herri mailako XV. Pala txapelketa.

19:00etan: Buruhandiak.

20:00etan: Gazte poteoa.

21:00etan: Gazte afaria.

23:30etan: Su artifizialak, Zaragozana pirokteniarekin.

00:00etan: Kontzertua: Zea Mays, Idi Bihotz eta Azgarth.

Goizaldera: Txokolate jana.

Ekainak 25, igandea:

10:30etan: Herri mailako plater hausketa.

11:00etan: Meza.

12:00etan: Herritarrei Udalak eskainitako hamaiketako. Jarraian, Anjel Mari Peñaigarikano eta Iñaki Murua bertsolariak.

18:00etan: Gipuzkoako txapelketarako baliagarria den segalari proba, Insausti-berriko zelaian. Jose Ramon Aia, Bixente Mitxelena, Jesus Mari Ormaetxea eta Jo-xean Otaño

19:00etan: Asto karrera.

20:30etan: Sagardo eta talo dastaketa.



Festa onak pasa!

EDARITEGIA

☎ 943 88 95 60 OLABERRIA

GARTXO JATETXEA

gosariak hamaiketakoak eguneroko menua

Aukera haundia, 35 plater

Industrialdea, 118

☎ 943 88 13 09 OLABERRIA

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO IBILGAILUREN KARROZERIA, TXAPA ETA PINTURA

Iurre lantegialdea, 10

☎ 943 88 05 65 OLABERRIA

IRUROK



OPEL



San Joan zoriontsuak denoi!

N-1 errep. Madrid-Irun

☎ 943 88 51 50

OLABERRIA

ARRIETA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak... era guztietako ospakizunak

JOSE MARTINEZ ARROYO

BULKANIZATUAK

Marratuak, llanta eta neumatiko salmenta

☎ 943 88 05 66 (Tailerra)

☎ 943 88 16 69

Iurre Auzoa

OLABERRIA

Javier Fernandez olaberritar argazkilaria

3 5 urteko olaberritarra biologoa da ikasketaz eta bere lanarekin bi zaletasunak uztartzen ditu, argazkigintza eta natura. Beasainen Irudi foto denda jarri du, bertan argazkiak errebelatu eta jaunartze edo ezkontzetetako argazkiak ateratzeaz gain paisaje eta animalien argazki eta posterrek eros litezke.

- Nolatan argazkilaria?

- Institutuan irakasle batek argazkigintza ikastaro moduko bat eman zigun. Hortik zaletasuna hartzen hasi nintzen eta 17 urterekin erosi nuen lehenengo reflex kamara. Batez ere natura eta paisaiak gaitzat hartuta egiten nituen argazkiak. Ortzadar argazki elkartean sartu eta lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen, lehen saria 1986an jaso nuen. Biologia karrera egin eta tarteka argazkiak egiten hasi nintzen. Era profesionalagoan 1992an Patagoniara bidai egin nuen argazkiak ateratzera eta gero aldizkarietara saltzeko. Hortik aurrera Kutxa fundazioarekin kolaboratzen



Dendarekin salneurri merkeak lortzen saiatu da Javier, laborategi merkeagoak lortzen.

hasi nintzen ikusentzunezkoak ematen, aldizkarietan ere nire argazkiak argitaratzen hasi ziren...

- Munduko zoko ugaitan izan zara, zer falta zaizu ezagutze-ko?

- Patagonia ondoren, Galapago irlak, Venezuela, Hego Afrika, Botswana, Namibia, Zinbawe, Islandia, Costa Rica, Guatemala, Belize... beti ere argazkiak ateratzen, ondoren natura eta bidai aldizkarietan argitaratzeko. Mundua handia da eta asko dago oraindik ikusteko eta argazkiak ateratzeko. Bizitza batean ez du denak ikusteko den-

borarik ematen.

- Nola lortzen duzu bidaiak egiteko dirua?

- Normalean ez zaituzte bidaiak ordaindu eta argazkiak ateratzera bidaltzen. Hori Nacional Geografic, Geo eta horrelako aldizkari handietako argazkilaria batzuk bakarrik egiten dute. Gainontze-koak 'free-lance' modura ibiltzen gara. Norabaitera joan argazkiak atera eta ondoren argazki horiek saltzeko mundu guztiarekin borrokan ibili beharra izaten dugu.

Orain denda batez ere etorkizunari begira jarri dut, baina nire asmoa bi lan egite-

ko moduak mantentzea izango litzateke.

- Erraz saltzen al dituzu orain zure argazkiak?

- Hori lortzeko artxibo ona izatea garrantzitsua da, argazkiak eskatzen dizutenerako. Orain Euskal Herri eta Pirinotako argazki artxibo garrantzitsua dut eta hainbat aldizkarietara bidaltzen ditut edo eskatzen dizkidate. Diario Vasco-k atera zuen Gipuzkoako ibilbideen gehigarriko argazki asko nireak ziren, orain Ostoa argitaletxea kaleratzen ari den Euskal Herriko mendien gidetarako ere argazkiak egin ditut.

Postalak eta posterrak ere kaleratu ditut. Argitaletxe edo erakunderen batek kaleratu ez duen Euskal Herriko lehenengo posterra nik argitaratu dut (Olaberria, Aralar atzean duela). Turismo Rural aldizkariaren hurrengo alean Goierriaz erreportaje bat kaleratuko da nire argazkiekin.

- Animalien argazkiak ateratzea, berriz, ez da erraza izango.

- Askoz ere zailagoa da he-
men txantxangorri bati argazkia ateratzea Afrikan le-

ALKATEAREN AGURRA

Olaberritar agurgarriok:

Aurren-aurrena, lerro hauetaz baliatuz, ordezkatzeko dudak korporazio honetan jarri duzuen konfiantza eskertu nahi dizuet.

Beti edukiko gaituzue zuen arazoak entzuteko prest eta konponbide egokiena ematen ahaleginduko gara.

Aurtengo jaietarako zera eskatu nahi dizuet: eguneroko arazoak ahaztu eta jaiak denok alkarturik ospatzea, herriaren onurako.

Aldi berean, baita, gogoratu zenbat arrazoiengatik gure artean jaietaz gozatzen izango ez ditugunei, eta adierazi kontuan ditugula.

Alkatea

Txomin Mendoza Perez



hoi bati ateratzea baino. Kenian mundu guztiak ateratzen ditu lehoien argazkiak, hemen animalia guztiek beldur handiago diete gizakiei.

Txori bati behar bezalako argazkia ateratzeko gutxienez 4 metrora gerturatu behar zara eta hori ez da batere erraza. Adibidez Olaberrian okil bati argazkia ateratzeko 4 egun behar izan nituen. Lehenengo basoko zein lekue-tan dagoen jakin, habia aurkitu, ondoren bere portaera aztertu, piskanaka gerturatu, ohitzen joateko flaxa botatzen hasi, oihalezko ezkutalekuan ordu mordo pasatu...

- Paisaiaren argazkiak ateratzeko zer hartu behar da kontutan?

- Argia aztertzea da garrantzitsua, gero urtaro egokiena aukeratu... Argazki ona ateratzeko 3 gauza izan behar dira kontutan, lehenik argia, argi txarrarekin argazki bat ez da inoiz ona izango. Bestea konposizioa eta hiru-garrenik gaia bera. Paisaietan egokiena goizeko eta arratsaldeko argia da. Eguerdian ateratako guztiak oso argi gogorra izaten dute, itzalak oso ilunak izaten dira. Hobe da gustatu zaizun leku horretara momentu egoki batean joatea. Argazkia landu egin behar da. Batzuetan ger-



"Erakusketak jarri ditudanean konturatu naiz jendea leku ezagunak ikustea gustatzen zaiola, denbora gehiago geratzen dira argazkiak ikusten", dio Javierrek.

ta liteke nonbaitetik pasa eta justu argi egokia egotea, edo adibidez ortzadarra azaltzea, baina normalean landu beharra dago.

Garbi dago lanean jarri-pena izateak ematen diola lanari kalitate ona. Hori lortzeko ondo landu behar da gaia, urtaro ezberdinetan eta egoterra ezberdinetan egin behar dira inguru bateko argazkiak, ez da nahikoa behin joan eta argazkiak ateratzea.

- Argazki kamara beti zeurekin eramaten al duzu?

- Kanpora noan guztian kamara nirekin eramaten dut, tripodea ere bai, askotan tripodea hartzen ez badut zer-baiten falta nabari dut. Hori ez da jende askoren buruan

sartzen. Nire argazkiak bereizgarri bat badute, hori eremu sakontasuna ondo landu dudala da. Paisaietan beti gertu dagoen zer-bait sartzen dut ikuspuntu bat egon dadin. Eta noski gertuko zer-bait hori ondo enfokaturik egon behar da, horrek diafragma oso itxiak erabiltzea eskatzen du eta askotan 2 edo 4 segunduko esposizioekin lan egiten dut, eta horretarako tripodea guztiz beharrezkoa da. Aldi berean tripodearekin argazkia ateratzeko denbora gehiago eskatzen du eta jendearekin bazoaz hauek zure zain egotea, beraz argazkiak ateratzeko nahiago dut bakarrik edo beste argazkilari batekin mendira joatea.

- Ze argazki mota du gustoken jendeak?

- Paisaiak gustatzen zaizkie asko, mendiak, baserriak, herriak... Artxiboak etxean dauzkate eta denborarekin Euskal Herriko artxiboak dendara ekarri nahi ditut. Jendeak gutxi gora-behera zer argazki nahi duen eskatzen dit eta etxean aurkitu ondoren aukeratzeko hainbat argazki ekartzen dizkiot. Gustoko badu nahi duen neurria handitzera bidaltzen dugu.

- Ezkontzetako argazkiak ere egiten al dituzu?

- Lehen bakarren bat eginda nengoen baina orain denda dudaretik gehiago egiten ditut. Honek 'free-lance' bezala ez duzun segurtasuna ematen dizu. 'Free-lance' bezala ateratzen dituzun argazkiak ez dakizu handik hilabetera edo urtebetera argitaratuko diren. Adibidez orain kalera-tuko den Goierri buruzko erreportaiak urte t'erdi darama 'Turismo rural' aldizkariaren erredazioan, eta bitarte horretan gelditu dago ezin dut beste inora bidali. Ezkontze-kin badakizu asteburu askotan lana izango duzula eta lan hori handik hilabetera kobratuko dituzula.

OGEi S. A. L.

Eraikuntza metalikoak

- ✓ Hormigoneren fabrikazioa
- ✓ Hormigonatu hornitegiak
- ✓ Fatxadetako jasogailuak

☎ 943 88 52 50 - 4
Iurre Auzoa, z/g
OLABERRIA
12 P.K. BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA

Garaiea

AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA



INDUSTRIAS LANDU

KOOP. E.

PREZISIOKO MEKANIKA OROKORRA

☎ 943 88 21 52 - 943 88 61 94
Faxa: 943 88 99 10

95 posta kutxa BEASAIN
6. Industrialdea, Iurre auzoa OLABERRIA

Mutiloko San Pedro jaiak



Ekainak 29, osteguna: San Pedro eguna:

19:30ean: Suziriak eta kanpai-jotzea festei hasiera emana.

20:00etan: Meza Santua.

20:30ean: Txerriaren jaitiera.

Ondoren iluntzea girotze-ko: Andonegi eta Ostolaza trikitilariak.

Ekainak 30, ostirala:

19:30ean: Suziriak eta Kanpai-jotzea.

20:00etan: Sagardo dastaketa eta talo eta txorizo jatea. Ondoren oilasko errea izango da. Dena Andonegi eta Ostolaza trikitilariak alaituko dute.

00:30etatik goizalderarte: Dantzaldia Etzakit taldearekin.



Bukaeran Txokolate jana herriko plazan.

Uztailak 1, larunbata:

12:00etan: Poteo herrikoia.

14:00etan: Herriko gazteen bazkaria.

16:00etan: Haur jolasak. Opari ugari izango dira!

17:00etan: Pilota partiduak herri mailan.

17:30ean: Sega apustu mundiala herriko gazteen eskutik.

18:00etan: Patata-tortila lehiaketa.

18:00etan: Bola lehiaketaren hasiera. **Oharra:** Izen ematea 19:00etan itxiko da.

19:00etan: Ardo banaketa plazan.

20:00etan: Meza santua.

20:30ean: Herri afaria.

23:30etik goizalderarte: Ene Bada eta Irats taldeek bazterrak girotuko dituzte.

Eguna ondo amaitzeko: Batzuri zopa ederra izango da.

Uztailak 2, igandea:

Goizean: Kriseilu taldeko txistulariekin goiz eresia.

11:30ean: Meza santua.

Ondoren: Gabiriko Goruntz dantza taldearen ekitaldia.

12:30ean: Toka lehiaketa federatu-gabekoentzat.

13:00etan: Zeberio eta Gorrotxategi bertsolarien lehenengo saioa.

Ondoren Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak.

18:00etan: Bola lehiaketa. Izen ematea: 17:30etik 18:30era.

18:30ean: Trialsin erakustaldi ikusgarria. Bertan parte hartuko dutenak honako hauek izango dira: Enekoitz Untxegi, Mikel Inorbe eta Iban Rodriguez.

19:30ean: Pilota partiduak. Txikitan: Asier Izeta/Mikel Garziandia. Iñigo Izuskiza/Gorka Gerriko. Jubeniletan: Ion Azagirre/Iker Azagirre. Olano/Iraeta. Hombre/Etxeberria. Castellanos/Olaran.

Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa.

Arratsaldean eta gauerarte Munduate eta Nograro trikitilariak.

Oharrak

Afarirako izen ematea Osatu jatetxean. Tfnoa: 943 80 11 66

Eskulan erakusketa festa egunetan Eskola-etxean.

Tonbola izango da Apaiz-etxean.

PATXI erretegia

San Pedro jai zoriontsuak pasa
itzazue guztiok!



& 943 80 15 75
Liernia Auzoa
MUTILOA



MUJIKA Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA



OSTATU

Jatetxea - Logelak

Festa onak pasa!

Tel.: 943 80 11 66 MUTILOA

Sanpedroetako ekitaldi aipagarrienak

Ekainaren 29an, San Pedro egunarekin batera hasiko dira aurtengo jaiak, ekitaldiz betetako lau egun izango dira aurtengoak eta GOIERI-TARRAK eskaintzen duen aukera hau aprobetxatu nahi dut, Goierri osoa gure herria bisitatzera gonbidatzeko.

Hona hemen egun horietarako antolatuta dauden ekitaldirik nabarmenenak:

Txerriaren jaitsiera festei hasiera emateko

San Pedro egunean, txerriaren jaitsierarekin ematen diegu hasiera festei. Apaiz etxetik jaisten da udaletxeko balkoiaraino iluntzeko 8,30etan. Txerria urtero egiten da eta festa egun guztietan egoten da balkoian. Azken egunean errez bukatzen da bere egitekoa.

Sagardo dastaketa ekainaren 30ean

Urte batzuk badira ekintza hau antolatzen hasi zela, hasiera batean eliz atzean egiten zen eta ikusirik jendearen artean erantzun ona zuela pixkanaka-pixkanaka hazten joan da eta orain herriko frontoian egiten da. Aurtengoan 23 izango dira sagardotegiak, Astigarragatik hasi

eta Goierri arteko sagardoak probatzeko aukera izango da. Sagardoari laguntzeko berriz txorizo eta gazta pintxoak, ogiarekin nahiz taloarekin.

Eta sagardoa probatu eta zerbait jan bitartean, dantza egiteko aukera ere izango da Andonegi eta Ostolaza trikitilarien eskutik. Sagardo dastaketa eta Etzakit taldearen dantzaldiaren artean dagoen denbora betetzeko berriz, oilasko errea jateko aukera ere izango du nahi duenak. Ez dago beraz egun horretan Mutilora ez gerturatzeko aitzakiarik.

Patata-tortila lehiaketa larunbatean

Aurtengoa egiten den bigarren aldia izango da. Iaz 11 bikotek parte hartu zuten lehiaketan eta sekulako giroa egon zen tarte horretan herriko plazan. Egun horretan egiten diren tortilak inguratzen direnen artean partitzen dira ondorenean, ardoarekin batera.

Ondoren herri afaria egingo da herriko plazan eta egunari behar bezalako errematea emateko gau pasa mundiala Irats eta Ene Bada taldeen eskutik.



San Joan bezperako arbola jartzea eta sua

Aspalditik datorkigun ohitura da San Joan bezperan herriko plazan San Joan arbola jartzea. Garai bateko ohitura omen zen gainera urtero herriko baserri desberdin batetik ekartzea. Azken urteotan toki beretik ekarri ohi izan da baina aurtengoan dagoeneko pentsatu da beste toki batetik ekartzea. Arbola basoan bota eta traktore gainean ekartzen da herriko plazaraino, bertan zuritu eta lore sorta ederra eta ikurrina jarri ondoren arbola zutik jartzen da. Arbola zutitu eta gero, pilatutako traste zahar piloari su ematen zaio eta noski ezin falta ondorenean bokadu bat, egunari tokatzen zaion moduko amaiera emateko.

Eskulan erakusketa eskola etxean

Urte hasieraz geroztik herriko talde bat, eskulanak egiten aritu da eta iritsi da urtean zehar egindako horiek erakusteko garaia, makrame, gantxilo eta pintura lanak egin dituzte besteak beste. Erakusketa eskolaetxe azpiko lokaletan egongo da eta bi egunetan zabalduko da: San Pedro egunean, arratsaldeko 8,30etatik 9,30etara eta uztailaren batean 5etatik 6,30etara Nahi duzuenok beraz, lan horiek ikusteko aukera izango duzue.

Igandeak berak ere ez du aipamenik egin gabe uztea merezi. Gabiriko Goruntz taldearen ekitaldia meza ondorenean, bertsolariak, trikitilariak arratsaldean trialsin erakustaldia eta pilota partidak.

Ez dago aitzakia bila ibili beharrik egun hauetan Mutilora gerturatzeko eta oraindik ez badituzu gure herriko festak ezagutzen animatu eta etorri, merezi du eta.

Iñaki Ugalde



Mutiloako Udala

MUTILOAKO SAN PEDRO JAIK

Urte osoan zehar hainbeste esperotako San Pedro Jaiak. Herritarroi jai zoriontsuak igarotzea opa dizuegu eta bertara hurbiltzen zaretenok disfruta ezazue herriak eskaintzen dizkizuen aukeraz. Denon artean giro jator eta alaia egin dezagula.

Aldi berean eskerrak eman nahi dizkiegu festak antolatzen parte hartu duten guztiei.

San Pedro jai zoriontsuak!



Alamartxo eguna

Iritsi da udaberriari agur esan eta udari ongi etorria egiteko garaia. Udako solstizioaren aitzakian alamartxo gaua ospatuko da gaur gauean Euskal Herriko hainbat txokotan. Zaldibian egitarau berezia prestatu dute Udalak eta herriko gazte batzuek. Ilunabarreko 7etan hasiko da festa herriko txarangarekin kalejiran. 7:30etan irekiko dute ardo barrika eta 9etan hasiko

da herri afaria plazan. Gaueko izarra ordea, afalondoan etorriko da. Herriko hainbat gazte eta hurrek dantzak, txalaparta, abestiak, trikitixa, pianoa, gitarra, diapositibak eta antzerkia uztartzen dituen emanaldia eskainiko dute *Izan zirelako...* izenburupean. Ikuskizunaren ondoren, Roberto eta Kepa Gatikako trikitilariek emango diote amaiera jaiari.

Uda 2000

Ekintza ezberdinetan parte hartu nahi duenak, ekainaren 26a baino lehen eman behar du izena, Kultur etxean (943 160338). Matrikula izena emateko garaian ordaindu behar da.

Udako jarduerak: 3-12 urte bitartekoentzat. Uztailaren 3tik 21era, goizeko 10etatik 1,30etara. Matrikula: 1.000 pezeta.

Aerobic: 13 urtetik aurrerakoentzat, uztailaren, astean hiru egunez, goizez nahiz arratsalde. Matrikula: 2.000 pezeta.

Piraguismoa: 4. mailatik 8. mailara bitarteko ikasleentzat, 3 taldetan banatua. Uztailaren 10etik 14ra, 10:00etatik 13:30era. Matrikula: 1.000 pezeta.

Tenisa: 11 urtetik gorakoentzat, uztaila eta irailean. Matrikula: haurrak 1.000 pezeta, helduek 2.000.

Defentsa pertsonala: 10 urtetik gorakoentzat, uztailaren 3tik 14ra, 10 orduko ikastaroa. Matrikula: haurrek 1.000 eta helduek 2.000.

Arku-tiraketa: 12 urtetik gorakoentzat, 10 orduko ikastaroa, uztailaren 3tik 7ra, 11:00etatik 13:00era. Matrikula: 1.000 pezeta.

Mendi irteera Picos de Europa

Gailurrerantz Kirol Elkartek Picos de Europa txangoa antolatatu du datorren astebururako. Uztailaren batean, larunbata, goizeko 6etan herriko plazatik atera eta autobusa Sotresen (1050 m) utzi ondoren, Vega Urriellora (1960 m) igoko dira. Hango aterpean lo egin eta igande goizean Fuentedeko Cablean (1854 m) amaituko dute txangoa. Sasoi betean daudenez, gainera, igandean Peña Vieja (2613 m) igotzeko aukera izango dute.

Izen emateko epea igande honetan, hilak 25, amaituko da. Horretrako Kirol Elkarteko mendi sailak Kutxan duen kontuan (2101.0075.00.00.0258057.9) sartu beharko du dirua (langileek 6000 pezeta eta ikasle eta langabetuek 3000).

Beharrezkoa da norberak bere lotarako zakua eramatea, bai eta bi egunetarako bazkaria, eguzkitarako krema, betaurrekoak... Anima zaitezte Picos de Europako paraje zoragarri hauek ezagutzera, samurra egingo zaizue eta!

Joseba Insausti txapeldun

Urretaetxeberri baserrian artzain jarduten duen ordiziarak Intxaurrondoko VII. Gata lehiaketa irabazi berri du. Artzain gaztea ilusioz beterik agertu da Idiazabalgo gaztaren jatorrizko izendapena duen txapelketa irabazita.

Presoen aldeko martxa nazionala

Donibane Garazin ekainaren 17an abiatu eta Galdakaon uztailaren 28an amaituko den martxa nazionala uztailaren 2an etorriko da Zaldibiara. Senideek euskal presoen eskubideak errespetatu daitezela antolatu duten ekimenak egun osoko aldarrikapena ekarriko du herrira, festa

giroan. Eguerdian ordubetez izango dugu herrian lekukoa, eta ehun metrotik ehun metrora eskuz esku pasatuko da lazkaotarren eskutik hartu eta Itsasondokoei eman arte. Aldarrikapenaren aitzakian trikitixa, dantza, bazkaria... denetik izango da herrian.

Erakusketa

Herriko pintura eta taila ikastaroetan Patxi Epelde, Ines Elorza eta Mikel Arozenaren ardurapean egindako lanak jarriko dira erakusgai kultur etxean, gaurtik ekainaren 30era. Egunero arratsaldeko 6etatik 8etara herritarrek ikastaroan eginiko artelanak ikusteko aukera paregabea.

Sarai Jauregi - Iñaki Gurrutxaga



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA



BILTEGIRATZE SISTEMAK

Salabatore Auzoa, 17
82 p. k.
BEASAIN

*San Pedro zorianak
aniztasunak*

☎ 943 88 30 15
☎ 943 88 24 40
Faxa: 88 97 41

San Joan eta San Pedro jaiak

Loinatz Jaiak pasa berriak badira ere ekainari jai giroan emango diogu amaiera. San Joan bezperarako, ekintza ezberdinak antolatu dira. Arratsaldean hasiko da festa, erraldoi eta buruhandiekin, herriko txistularien doinuez lagunduta ibiliko dira 19:00etatik aurrera. 22:00etan txistulariak Barrrendain plazara igoko dira, bertan kokatuko baita festaren erdigunea. 22:30ean, suaren inguruan, Ostadar dantza taldekoek zortikoa eskainiko dute. Jarraian, dantzaldia hasiko da Abaxi taldearekin.

San Pedroak Arriaran eta Ezkiaga Auzoetan

San Pedro egunaren inguruan izango da ospakizunik Arriaran eta Ezkiaga auzoetan.

Arriarani dagokionean, ekainaren 29an eguerdiko

12,30etan ospatuko den Meza Nagusiarekin emango diote hasiera aurtengo jaiari. Meza-
ren ondoren, omenaldi berezia egingo zaio bertako bizilagun zaharrenari. Jarraian, herri-bazkaria egingo dute eta bertan izango dira bertsolariak eta trikitilariak giroa alaitzen. Arratsaldeko 5etan, mus eta punttu txapelketak izango dira eta 8etan, trikitilariak.

Ekainaren 30an gazte afaria egingo dute.

Ezkiaga auzoan berriz, San Pedro bezperarako antolatu dute jaiak. Porteria Auzo Elkartek antolatuta, kiliki eta txistulariak izango dira 19:00etatik aurrera. 20:00etan berriz, txistorra-jana eta sardina-jana egiteko aukera izango da. Ospakizunei amaiera, 22:30ean piztuko duten suarekin emango diote.

Porteria Auzoko V. Areto-futboleko torneo

Pasa den larunbatean hasi zen Porteria Auzoko V Areto- Futbol torneo. Uztailaren 22a bitarte jokatu da Murumendi Ikastetxean. Sariak, lehenengo lauei banatuko zaizkie. 90.000 pezeta eramango ditu 1. sailkatuak eta 10.000 4. sailkatuak.

UEUrako subentzioak

UEUk (Udako Euskal Unibertsitateak) antolatutako udako euskarazko ikastaroen berri jakin nahi duen edonork, Udaletxeko Harrera zerbitzuan aurki dezake informazioa eta informazio zehatzagoa nahi izanez gero, Udaleko Euskara-zerbitzuan 943-028063 telefonora deituta emango zaio. Udalak ikastaro horietarako diru-laguntzak ematen ditu. Laguntza horiek jasotzeko, UEUko ikastaroetan matrikulatu behar da eta uztailaren 14ra bitartean eskaerak Udaletxean aurkeztu, horretarako dauden inprimakiak beteta.

LABURREAN

Kiroldegian Udako kanpaina martxan

Udako oporrekin batera eskaintza berezia antolatu da kirol mailan adin guztiei begira. Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin Uda 2000 Jolas izaerako Kirol jardueren kanpaina antolatu dute.

Jarduera guztien artean garrantzitsuenetakoak ditugu, eskolameentzako antolatzen diren Kiroletako Koloniak. Guztiak euskaraz izango dira. Jolas izaerako jarduera hauek bitxanda desberdinetan emango dira. Ekainaren 26tik uztailaren 7ra bata eta uztailaren 10etik 21era bestera. Adin bakoitzerako talde eta ekintza desberdinak izango dira.

-1996-95ean jaiak: Kolonia Txiki (igeriketa eta siko-motrizitatea). **-1994-92ean jaiak:** Kirol kolonia (igeriketa, jolasak eta tenisa). **-1991-88ean jaiak:** Abentura (eskaldak, arkuak eta piragismoa) edo Kirol festa (igeriketa, jolasak eta tenisa).

Ikastaro bereziak ere antolatu dira: Aerobica, Tenisa, Zesta-Punta, igeriketa eta zaldiketa. Uztailaren burutuko dira bi hamabostalditan. 13-18 urte bitarteko gazteek ere kanpainen parte hartu dezakete horretarako antolatuko diren talde berezietan.

Helduentzako, urtean zehar eskaintzen diren jardueraz gain, zaldiketa, tenisa, piragismoa eta arku tiraketa antolatu dituzte. Ikastaro guztietarako kopuruak mugatuta daude eta izenematearen ordena errespetatuko omen da. Informazio gehiagorako deitu 943-887900 telefonora.

Erretiratuen etxearen XVIII. urtemuga

Ospakizun berezia egingo da Erretiratuen Etxean ekainaren 26an, XVIII. urtemuga dela eta. Goizeko 11,30etan meza emango da hildako bazkideen oroimenez, Gurea abesbatzak kantatua. Jarraian, 12:30ak inguruan lunch-a eskainiko zaie bazkideei. 13:30ean, opari zozketa egingo da eta Erretiratuen Etxean egindako azkeneko jokoetan irabazle atera zirenei garaikurra emango zaie. Arratsalde partean berriz Aurtzaka dantza-taldeak dantza saioa eskainiko du Erretiratuen etxean arratsaldeko 18:00etan. Eta jarraian dantzaldia izango da.

Erretiraten etxeak antolatuta era berean, belaunaldien arteko topaketa egingo da hil honen 28an. Partehartzaile guztiak bikoteka bildu beharko dira, eta bikote bakoitza adineko pertsona batek eta ume batek osatu beharko dute. Urrialde plazan izango da 17:00etan. Ondoren 19:00etan, belaunaldien arteko topaketa parte hartu duten guztientzat dantzaldia izango da.

Nekane Altuna



ARRIARAN
karrozeriak

Salvatore Auzoa- Izarraitz, 4
☎ 943 88 70 91
BEASAIN

Zure esku jartzen ditu:

- ✓ Txapa eta pintura-lanetako azken aurrerapenak.
- ✓ Ibilgailu industrialak pintatzeko labe-kabina.
- ✓ Bankadetan egindako konponketen garrantia.
- ✓ Garabi zerbitzu iraunkorra, tfnoa: 943 88 32 53
- ✓ Aurrekontuak egiten ditugu inongo konpromezurik gabe.

ZATOZ ETA IKUS EZAZU!



Pakoren aldeko bizikleta martxa

Ekainaren 17an, Pako Eskitxabel preso legorretarraren aldeko bizikleta martxa egin zen Donostiatik Legorretara. Martxan jende askok hartu zuen parte euskal presoekiko elkartasuna adieraziz. Aipatu, martxa hau ez zela egin soilik Pakok bizi duen egoera salatzeko. Izan ere, asko dira zigorraren hiru laurdenak beterik izan arren barruan jarraitzen duten preso-

ak.

Pako Eskitxabel, duela 58 urte Legorretan jaioa, eta Donostiako Amara Zaharreko auzotarra dena, 1980.ko urriaren 4an atxilotu zuten. 1995. urtean zigorraren hiru laurdenak bete bazituen ere, oraindik gartzelan jarraitzen du. Preso dirauen 19 urte hauetan, Carabanchel, Soria, Alcalá Meco, Ocaña, Herrera de la Mancha, Sevilla II, Sal-

San Joan

Ekainaren 23an, herritarrek San Joan bezpera bertan ospatzeko aukera izango dute. Urteko egunik luzeena era berezi batean igarotzeko ondorengo ekintzak antolatu dira:

20:00etan: Zahagi ardoa. Udalak ardoa eskainiko du bertara hurbiltzen diren guztientzat. Ordu berean, Erromeria, 'Eneritz eta Naiara' herriko trikitilarien eskutik.

21:00etan: San Joan sua. Sua piztu ondoren herriko dantzari gazteek 'San Juan' dantza eta 'Agurra' eskainiko dituzte.

Jarraian, berriz ere, 'Eneritz eta Naiara' izango ditugu giroa alaitzen.

Korpus

Ekainaren 24an Korpus eguna ospatuko da. Egun honek aparteko garrantzia du legorretar guztientzat. Ondorioz, urtero bezala, eguna ahalik eta hobekin igarotzeko ondorengo egitaraua prestatu da:

10:00etan: Diana. **11:30ean:** Herri krosa. **13:30ean:** Sari banaketa. **18:00etan:** XI. ardo dastatze txapelketa. **18:30ean:** Zahagi ardoa. Udalak ardoa eskainiko du herritar eta bisitari guztientzat, hau guztia 'Iraunkorrek' txarangak alaitua. **19:30ean:** Meriendak. **Ondoren,** goizalderarte, kalejira eta dantza saioa 'Iraunkorrek' txarangarekin.

to del Negro, Zamora, Burgos, Melilla, Sevilla I, Córdoba, Martutene, Valdemoron eduki dute, eta egun Villabonan (Asturias) daukate.

Txirindulariek euren ibilbidea amaitu ondoren ekitaldiari hasiera eman zitzaion herriko plazan. Bertan hainbat eskaintza egin zitzaizkion Pakori: 'Agurra' dantza bere argazkiaren aurrean, bertsoak, 'Kalera, Kalera' kantua bertara hurbildu ziren

berrehun inguru lagunengan ahotsez lagundurik...

Elkartasun egun hau herriko plazan egin zen afari batekin amaitu zen. Afarian parte hartu zuten ehun eta bost pertsonen oso giro polita gozatzeko aukera izan zuten, batzuk eszenatokira igo eta irrintzi nahiz bertsoen bat botatzera ere ausartu zirelarik.

Inko Mujika
Laida Oiarbide

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

José Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 88 72 21
☎ 610 02 00 41

GARMENDIA
Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

Edozein motatako teilatuak egiteko prestatuak:
komunitateak, baserriak, txaletak eta abar

Tel-Faxa: 943 16 10 32 Maiuz Industrialdea, 26. pab. ORDIZIA

Udalak sustatutako etxebizitzaren salmenta

ALTZAGA
AZKEN ETXEBIZITZAK!

Guztira 180m² + lorategia

Informazioa:
Lanegunetan: 943 16 21 92
Larunbatetan: Altzagako Udaletxean (10:00-13:00)

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

Arlote irratia berriro ere martxan

Urte askotan isilik egon ondoren martxan jartzekotan da berriro ere Gaztetxetik emititzen den 'Arlote irratia'. Herriko arazo sozial, politiko, ekonomiko eta beste hainbat eta hainbat gai jorrazteko asmoa dute irratiairen etapa berri honetako esatariek. Proiektu berri hau aurrera ateratzeko, ordea, beharrezkotzat jotzen dute herriko sektore eta jende ezberdinen laguntza. "Irratia martxan jartzeko 250.000 pta.ko inbertsio bat egin beharrean gaude eta honetarako herritarren laguntza ezinbestekoa da, guk bakarrik ezin baitugu kopuru hori lortu", proiektua aurrera atera nahi dutenen hitzetan.

Irratia martxan jartzen denean, lehen etaparen antzera, herritarren kezka, arazo eta proposamenak kontutan hartuko dituzte, erabat irratia irekia izaten jarraitu nahi baitu. Momentuz eskertuko lukete herritarren laguntza ekonomikoa eta horretarako nahikoa izango da Kutxan zabaldu duten kontu korronteko zenbakian dirua sartzea (2101-0019-51-0123058562).

San Joan su gorri-gorria

Udan sartzearekin batera eta ohitura zaharrekin jarraitzeko asmoz San Joan sua egingo da ostiral honetan. Su Gorri taldeak antolatuta egunero hor aritu dira entseietan bertan egingo diren dantzetan parte hartu nahi duten guztiak. Sua gaueko 10etan piztuko da, Garagartza Pla-

zan eta ondoren betiko legez sorginen dantza izango da. San Joan suaz gain San Pedrotan ere piztuko da beste bat.

Finalerdiak jokoan

XXI. Lagunarteko Futbol Txapelketa amaitzeaz dago. Bigarren fasea amaituta 4 talde besterik ez dira geratzen orain, denak ere txapela lortzeko aukera bereekin. Alde batetik Morapios eta Badago taldeek neurtu beharko dituzte indarrak finalerdian eta bestetik hor arituko dira Urbitarte Sagardotegia eta E.R. Matxain Ileapaindegia. Neurketa hauek larunbat arratsalde honetan jokatuko dira anexo futbol zelaian. Finala, berriz, uztailaren 2an jokatuko da, goizeko 11,30etan eta ondoren txapelketan parte hartu duten jokalariek guztiak bazkari eder batez gozatzeko aukera izango dute.

Aitor Calvillo



OKE urpekoak beti bezain ondo

Trabesia gehienak amaituta eta igerilekuko txapelketak hasiera doazen honetan balantze positiboa egin dute OKE Urpekoak taldekoek. Izan ere, urtero ematen duten maila ona erakutsi dute orain artekoan ere. Bidasoako jaitsieran Mikel Iturrioz eta Ane Lopez de Bergara OKE Urpekoak taldekoek lortu zuten garaipena, bakoitzak zegokien mailan. Taldeka ere garaipena eskuratu zuten. Donostian jokatzen den Hiru Hondartzetako trabesian ere Mikel eta Ane nagusitu ziren eta oraingoan, junior mailan, baita Xabi Romero ordiziarra ere. Hueskan dagoen Medano lakuko trabesian, berriz, Diego Diez nagusitu zen eta junior mailan Maitane Merinok lortu zuen garaipena. Azken finean parte hartu duten lehiaketa guztietan lortu dute emaitza onen bat.

Trabesiak amaituta igerilekuko probak hasiko dira orain. Euskadiko Txapelketa asteburu honetan bertan izango da Tolosan eta uztailaren 8-9an Espainiakoa jokatuko da Bartzelonan. Hemen maila ona erakutsiz gero urrian Mallorcan jokatuko diren mundialetan parte hartzeko txartela lor daiteke. Honetarako aukera asko du Ane Lopez de Bergara OKE Urpekoak taldeko igerilariak.

Aipatu aurten futbola, saskibaloia edota errugbya bezain entzuna ez den kirol mota honetan gazte berri asko ibili dela eta hau ikusita OKE Urpekoak taldeko arduradunak pozik agertu dira, aurrera begira emaitzak ziurtatuta egongo direla ikusten baitute. Era berean ekainaren 26an Majori Kiroldegian hasiko diren urpeko ikastaroetara joateko jendea animatu nahi dute.



Kimetz ipuin lehiaketako sari-banaketa

Ekainaren 17an egin zen Kimetz ipuin lehiaketako sari-banaketa, Barrena jauregian. Bi nafar saritu zituzten. Euskarazko atalean, Miren Bidarte lesakarra eta gaztelerazkoan, Antonio Murugarren iruindarra. 100.000na pezeta jaso zituzten. 6. edizio honetara 52 lan aurkeztu dira.



Udaletxeko Batzar aretoan ekainaren 16an, goizeko 9,30etan, elkartu ziren Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburua den Alvaro Amann jauna eta Udaleko alkatea den Jose Mari Otegi jauna Itsasondo zeharkatzen duen Oria ibaiaren bideratze, enkauzamendu, obren 1. fasea burutzeko lankidetzahitzarmena sinatzeko. Bertan izan ziren baita ere, Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaria den Jon Buesa jauna, obren proiektua erredaktatu duen Alberto Gonzalez jauna eta Udaleko zinegotzi batzuk.

Hitzarmena sinatu ondoren, Ur Zuzendaria den Jon Buesak adierazi zuen obra hori aurtengo urtean hasiko dela eta gutxi gora-behera 18 hilabeteko iraupena izango duela. 524 milioiko aurrekontua du bideratze lan honek. Kopuru honen %75a Eusko Jaurlaritzak ordainduko du eta gainerako %25a Udalak, nahiz eta %25 hau Foru Al-
dundiko Obra Hidrauliko eta Hirigintza Departamentuak

bere gain hartuko duen.

Lehen fase honek Geltoki-ko zubitik, begi bakarrekotubi berria eginez, Jaso en-
presa parera arte hartuko du; 2. fasea Legorreta bitartekoa, gerora egitea espero da.

Jose Mari Otegi alkateak hitza hartu eta eskerrak eman zizkien Udalaren eta bizila-
gun guztien izenean Alvaro Amann eta Garraio eta Lan Publikoen Saila osatzen duen talde guztiari hainbeste urte zain egon ondoren, azkenean obra hori burutuko delako. Azpimarratuz, Sailburuak obrak horiek berehala egingo zirela eman zien hitza bete egin duela, "ez orain arteko-
ak bezala, agindu eta gero ezer ez".

Ondoren, Alvaro Aman-

Oria ibaia bideratzeko hitzarmena sinatu da

nek azaldu zuen obra hori be-
harrekoa dela eta pixkanaka-
pixkanaka ari direla toki des-
berdinetan bideratze lanak
burutzen.

Udala buru-belarri aritu da
obra hori egi burutu dadin.
Obra horrekin okupatu beha-
rreko ondasunen indemniza-
zioak 100 milioi inguru supo-
satu dizkio gure Udalari.

Bideratze lanen proiektua
erakusgai dago Udaletxeko
aretoan, uztailaren 15era arte.

Presoen aldeko mozioa

Ekainaren 2an udaletxean
egin zen bileran presoen alde-
ko mozioa onartu zen. Mo-
zioan egun presoek pairatzen
duten egoera tamalgarriaren
berri ematen zen. Urte luzez
euskal presoek euren eskubi-
deen alde borrokan aritu dire-
la gogorarazten zen. Euren
borrokaren azken lekukoa
azaroaren 1etik hasita 350
euskal presok egin duten gose
greba mugagabea izan da.
Euskal gizarteak ere bere
nahia eta erabakia maiz adie-
razi duen arren, egoerak bere
horretan jarraitzen duela zio-
en agiriak. Euskal presoek le-

kukoa euskal gizarteari pasa
diote konpromisoa hartu eta
ekimenak egiten jarrai deza-
ten. Modu horretan, presoen
eskubideen aldeko borrokan
urrats berri bat emanez, Uda-
lak euskal presoen eskubide-
ak eta herritarren borondatea
errespetatu dadin konpromisoa
hartzen du. Modu horretan,
udaletxeko balkoian eta Uda-
lak antolatzen dituen ekimen
guztietan Euskal presoak
Euskal Herrira bandera age-
rian egotea onartu zen. Herri-
tarrek ere euren etxeetako
leihoetan aipatu bandera jar
dezatela eskatzen du mozio-
ak. Saltokirik ez dagoenez,
udaletxean bertan jarriko dira
banderak salgai. Horrez gain,
aurrerantzean Udalak igor-
tzen dituen inprimaki guzie-
tan euskal presoak Euskal
Herrira zigilua ipintzen onar-
tu zen. Presoen alde herri
mailan antolatzen diren ekin-
tza guztietan parte hartzeko
konpromisoa ere adierazi zu-
ten.

Modu horretan, euskal
presoen eskubideen alde
ekainaren 17an Baigorri-
n hasi eta Euskal Herria osoa ze-
harkatuko duen martxarekin
bat egin du Udalak. Arbel
Aitz elkarteak, Iñaki Larraña-
gak (herriko erretoreak),
Gazte Asanbladak eta Etxe-
beste-Arza margoak-ek ere
bat egin dute martxarekin.

Nagore Etxeberria

Nortasun Agiria egitea

Uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean Beasaingo Udaletxe-
ko bulegoetan ez da Nortasun Agiririk egingo. Uztail, abuztu
eta irailerako zitak dituzten pertsonak edo nortasun agiria ate-
ratzeko premia handia dutenek, Donostiako bulegoetara jo be-
harko dute edo beste urrira arte itxaron beharko dute, berriro
ere Beasaingo Udaletxera joateko.



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritara

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

BEASAIN





Idiazabal

Argentinaren bisita

San Joan egunean, ekainak 24, iritsiko da Argentinako Idiazabalgo ordezkariak gure herrira. Miguel Angel Martinato alkatea buru dela lau lagun etorriko dira hemengo Idiazabal ezagutera. Idiazabalgo Udalak harrera ofiziala egingo dio argentinaren ordezkariari larunbatean. Herriko txistulari, abeslari eta dantzariak egingo diete ongietorria udal-txean (kronika hau idazterakoan erabat zehaztu gabe zegoen arren, arratsaldeko 7ak inguruan izango da). Ondoren herriko elkarte batean

afaria eskainiko zaie, herriko giroaren berri izan dezaten.

Idiazabala egingo duten lau eguneko bisitan, herria ezagutzeaz gain, Euskal Herriko bazterrak ikusteko denbora ere izango dute. Bide batez, irailean Idiazabalgo ordezkariak Argentinara egin behar duten bidaia antolatuko dute. Argentinako Idiazabalek 90 urte beteko ditu irailean, eta hori ospatzeko egingo diren ekitaldietan hartuko dute parte hemengo Idiazabalgo ordezkariak.

Goardi Gain

Udalak pleno berezia egin zuen ekainaren 20an, Goardiko eremuari dagozkion arau subsidiarioak aldatzeko. Aldaketa horren ondotik, Goardi Gain industrigunea handitzeko lanak hasiko dira. Pabilioiek orain betetzen duten beste hainbeste terreno egokituko da bertan industria gehiago ezarri ahal izateko. Hala, inguru horretan sortutako eskariari erantzun nahi dio Udalak.

Muskildikoak herrian

Bisitariak hartzea tokatzen zaio herriari uda hasiera honetan. Uztailaren lehen etorriko baitira Muskildiko ordezkariak Idiazabal ezagutuz egunpasa egitera. Gure herriko ordezkariak maiatzean bertara egindako bisitaren buelta da hau. Bateko eta besteko ordezkariak, aurrera begira elkarrekin egiteko ekimenak zehaztuko dituzte. Bi herrien arteko adiskidetzea da elkartruke hauen helburua.

San Joan sua

Gaur, ekainak 23, suaren inguruko ohiko ekitaldiak egingo dira. Ilundutakoan piztuko da sua Mujika ondoko aparkalekuan eta haren bueltan, sorginak eta dantzariak gau horri dagozkion errituak egingo dituzte.

Xabier Urteaga



Gabria

San Joan dala...

Urtean zehar badira data batzuk besteak baino esanahi handiagoa dutenak, edozein baino esanguratsuagoak izaten direnak. Ekainaren amaierarekin batera datorren uda garaiaren hasiera horietako aldi bat dela ezin uka, arrazoï ugarigatik egun berezi samarrak bilakatzen baitira. San Joan bezperako gau hau, gainera, berezietan bereziena dugu.

Gaurik laburrena gaurkoa izango da, San Joan bezperakoa, baina baita liluragarri eta magikoena ere. Antzinatek datorren usadioa da egun honetan sorginak, deabruak eta etsaiak etxe inguruetatik uxatzea, iluntasun orduak inoiz baino gutxiago direla

aprobetxatuz, nonbait. Arbasoen ohiturari jarraituz, herriko kaskoan sua piztuko da, iluntzeko hamarrak aldera, eta baita baserri gehienetan ere, kanpai bueltakoen duntotsen pean.

Kukua ere laster joango zaigu eskolaume eta ikasleen antzera oporretara, baina bazterretako festa eta musikkak ederki ordezkatzeko du haren kantua. Esaerak dioenez, 'San Juan eta San Pedro, astero balego! Ta Ama Birjina urriko, iñoiz ez al duk etorriko!' Izan zirelako gara...

Eskolako bidaia

1999-2000 ikasturtea ere iritsi da opor garaira, eta Balezategi eskolako ikasle,

Marrazki ikastaroaren amaiera

Hiruzpalau hilabete arkatx eta paper artean buru-belarri aritu ondoren, marrazketa ikastaroa iritsi da bere azkenera, ikasturte honi dagokionez. Joxe Mari Telleria artista segurarra arduratu da marrazkigintzako oinarriak eta teknikak irakasteaz, eta ezagupenok datorren kurtsoan egin asmo den pintura ikastarorako ezin hobeto etorriko zaizkie kurtso honetan jardun dutenei, bide batez.

Marrak zuzen edo okertxeago, guztiek jarri omen dute enpeina eta gogora, eta egindako lanak karpetan gordetzeko baino baliotsuagoak direnez Kultur etxean izango dira ikusgai, datozen egunotan.

Sariak

- **Endika Igartzabalek** larunbatean marrazki lehiaketa batean lehen saria jaso zuen, Donostian egin zen banaketa-ekitaldian.
- **Oroitz Maizek** Irungo Antzaran auzoko akordeoi txapelketa irabazi zuen pasa den igandean.

irakasle eta gurasoek egunpasa egin zuten lehengo igandean Hondarribi aldera. Goizean autobusez abiatu ziren kostara, itsasontzian ibili eta bazkariarekin ikasturtea agurtzeko.

Bestalde, eskolaumeak ekainaren 7 eta 8an izanak dira Etxarri-Larraungo Arotz-Enea aterpetxe eta na-

tur eskolan ikasfurte amaierako bidaian, Alkiza eta Albizturkoekin batera. Gainera, kasualitatez, hara joan den 20.000 umea tanda honetan tokatu da, eta opari eta tarta artean ibili omen dira gabiriarrak.

Aimar Maiz



Otso Festa, Preso eta errefuxiatuen aldeko ekintzak, San Joanak, Santixal...

Joan direnak eta datozenak

Hamabostaldi honetan izan dugu zer ikusirik. Musika ikasleen eta Otsoa dantza taldeak arrakastaz eman zion hasiera aurtengo Otso Festaren egitarauari. Joan den ostegunean, berriz, Oskar irabazi zuen 'Todo sobre mi madre', Almodovar zinegile espainiarraren azken filma eskaini zen Herri Antzokian. Larunbatean, Andoaingo 'Alberto Agirre' eta herriko Eate abesbatzen kantaldiaz gozatzeko aukera izan genuen.

Bestalde, Ataungo Amnistiaren Aldeko Komiteak eta Senideak-ek deiturik, hainbat ekintza burutu ziren joan den asteburuan. Giza katea ostiralean, El Duesoko kartzelan dagoen Karlos Ioldiri ezusteko bisita larunbatean eta igandean, eguraldi ederra lagun, Preso eta Errefuxiatuen aldeko festa Napar Iturrin. Asteartean, bestalde, Guardia Zibilak Karlos Ioldi eta beste 18 atxilotu zitueneko XV. urteurrena gogoratu

zen, kotxe karabana zarata-tsu bat eginez. Egun Karlosek bakarrik jarraitzen du kartzelan. 98.eko otsailaren 14an kondenaren 3/4ak beteta, legearen arabera azken 28 hilabeteotan kanpoan egon beharko zukeen arren.

Datozenak

Ostiral honetan, arratsaldeko 3etan Zelaiko badminton finalak ospatuko dira. Datorren larunbatean, 2etan hasi eta iluntzerarte, pala, frontenis, esku pelota eta VII. Ataungo Futbito txapelketaren finalak jokatu dira. Ondoren, 8,30 etan, aurtengo Otso Festari amaiera emango dion afaria Bittorrenen.

Tartean San Joan bezpera dela eta, afaria antolatu dute Artadikoek San Gregorion. Afalordua 9,30ak aldera izango da Artadin. Ondoren San Joan sua.

Agurtzane Bikuña

Ikastaroak

Larunbatean bukatzen da, udako kirol ikastaroetan parte hartzeko izen ematea. Udalak antolaturik, kirol desberdinetako ikastaroak izango ditugu. Sarrera 2.500 pezetakoa da eta ikastaro gehienak 16 urte bitartekoei zuzenduta daude tenisekoa ezik, hau 14 urtetik gorakoentzat da. Ikastaroen iraupena, batzaz beste, 10 eta 15 ordu artekoa da eta guztiak ere uztailaren izango dira. Hala nola, arku tiraketa ikastaroa hilaren 3tik 7ra, eskalada 17tik 22ra eta tenisekoa uztailaren 3tik 15era. Piragua ikastaroa uztailaren 10ean hasi eta 15ean bukatuko da baina, izen emateko epea uztailaren 3rarte luzatu da. Ikastaroak kirolari dagokion lekuetan eskainiko dira. Arku tiraketa eta tenisa Auzoeta kiroldegian, eskalada Jentilbaratzan eta piraguismoa Agauntza eta Ondarretan.

Heriotza

Joan den astean hil zen Mirian Alkorta. Doluminak sendiari.



Santa Ixabel jaiak Aian

Ekainak 30, ostirala:

17:00etan: Ume jolasak.

Ondoren: Ataungo dantzari txikien saioa.

24:00etan: Dantzaldia Sakatrik taldearekin.

Uztailak 1, larunbata:

12:30ean: Unai Iturriaga eta Aitor Mendiluze bertsolariak.

Ondoren: Agautz trikitilari taldea, herriko bertsolari gazteak eta auzo bazkaria.

17:30ean: Toka txapelketa.

Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa.

19:30ean: Sardina eta sagardo probaketa.

23:00etan: Fist Fucking taldearen rock kontzertua.

24:00etan: Iparraldeko Maddaly-ren kantaldia.

Ondoren: Kristina eta Amaiarekin dantzaldia.

Uztailak 2, igandea: Santa Ixabel eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Eate abesbatza eta luntxa plazan.

12:30ean: Txirrindulari lasterketa: Kaxeta-Urkillaga.

17:30ean: XV. Dantzari txikien txapelketa mugatua.

Ondoren: Saralegi anaien erakustaldia.

Gauean: Agautz trikitilari taldearekin dantzaldia, jaietako amaiera emanez.

Santixal egunean oinez Aiara

Atsedentoki eta Udalak plan polita eskeintzen digute Santixal egunerako: Jubilatuen elkartetik goizeko 9etan irten eta Urkillagatik zehar Aiako plazara ibilaldia. 11etan meza nagusia eta ondorenean Eate abesbatzaren kantaldia elizan. Jarraian luntxa eskeiniko da plazan. 14:30ean bazkaria. (Bakoitzak etxetik eramana. Edatekoa elkarteak jarriko du). 17:30ean hasiko da XV. Dantzari Txikien Txapelketa mugatua. Iluntzean 7rak aldera, etxera buelta. Itzuleran, gure aiton-amonen ohitura berreskuratzuz, Gaztiñeren meriendatzeko aukera izango da. Ibilaldian parte hartzeko izen ematea, gaur, hilak 23 bukatuko da. Horretarako Jubilatuen Elkartera zein telefono zenbaki honetara zuzen zaitezke: 943 18 04 84.

Gerarh Barh-en mendeurreneko ospakizunak

Gerarh Bahr Legazpiko Udana auzoan jaio zen 1900. urtean. Garai hartan bere aita Kataberako meatzeetako zuzendaria zen. Ikasketa ertainak eta goi mailakoak Alemanian burutu zituen, eta 28 urterekin kimikan lizentziatu zen. Dena den, bi urte lehenago, ingelesa, frantsesa, gimnasia eta kimika irakasteko tituluak ere bereganatu zituen.

Eten bat izan zuen, ordea, bere ikasketetan, Lehen Mundu Gerraren ostean (1919tik 1921era). Tarte horretan Legazpiko Olaberri auzoan bizi izan zen gurasoekin. Garai hark eragin handia izan zuen bere etorkizunean. Izan ere,

euskara ikasi ezezik, Euskaltzaindiako urgazle izatera ere iritsi zen. R. M. Azkue euskaltzainburua laster konturatu zen haren talentuaz eta hainbat ikerketa lan agindu zizkion. Eten horren ondoren Alemaniara itzuli bazen ere, ez zituen bere euskarari buruzko lanak alde batera utzi. Hala, 40 urterekin aurkeztutako tesiak euskara zuen ardatza: Euskara eta iberiera.

Gerhard Bahr eta bere senditarrek gaur egunera arte Ormaiztegiko sendi batzuekin izandako harremana kontuan izanik, bera jaio zeneko mendeurreneko ospakizun batzuk gure herrian burutzeko pro-

posamena jaso zen Batzorde antolatzailearen eskutik. Ondorioz, aipatu mendeurreneko ekitaldiak Legazpiko Udaren eta mendeurreneko ekitaldiak antolatzeko sortu den Batzordearekin elkarlanean antolatu dira. Atzo, Gerarh Barhri buruzko hitzaldia izan zen, Aitor Gurrutxaga eta Eliaxabete Garmendiaren eskutik.

Astean zehar, azkenik, Barhi buruzko erakusketa dago ikusgai udaletxeko erakusketa aretoan. Bihar, ekainak 24, bukatuko da. Ordutegia: gaur, 17:00etatik 18:30era eta bihar, 12:30etik 13:30era.

Aitziber Murua

San Joan bezpera

Ekainak 23, San Joan bezperako ekitaldiak hauek dituzue. 20:00etan, Txindata Musika eskolako trikitilari gaztetxoekin kalejira, buruhandien laguntzaz. 22:00etan, Tantaia altxatzea herri gunean. San Joan suaren piztea. Jarraian, Txindata Musika eskolako trikitilariak.

Lierniko erromeria

Uztailaren bigarren igandean ospatuko da ohiko ormaiztegiarren Liernirako erromeria. Uztailaren 9an izango da. Aurtengo egitaraua, besteak beste, Meza Nagusiak, haurrentzako jokoei, bazkari herrikoiak, antzerkiak eta trikitixaz alaituriko giroak osatuko dute.

Aizkorriko Lagunen egunerako prestaketak aurrera doaz

Antolaketa lanak aurrera doaz uztailaren 2an burutuko den Aizkorriko Lagunen Elkartearen sorrerara ospaketarako, bertan parte hartzeko atxikimendu ugari jasotzen ari delarik Udala. Elkartearen anagrama duen kamisetak salgai daude herriko taberna guztietan eta bazkariarako izenematea ekainaren 27arte atzeratzea erabaki da. Esan, Santu Espiritun izango den hamaiketarako ere herriko Elkaratek beren laguntza eskaini dutela.

Egun horretarako Mendaldeko Martzelino Arosteigik Kultur etxean erakusketa bat jartzeko prest agertu da. Egur tailaketako erakusketa izango da eta besteak beste

Aizkorriko Gurutzea eta musika partitura ugari izango dira ikusgai.

Amezti Mendi Elkartearen irteera

Iazkoari jarraituz, aurten ere Pirineotara irteera egingo du Amezti Elkaratea. Bertan parte hartu nahi dutenek, izena Mikel Zabaleta eta Josean Agirrebengoari eman behar zaio. Adierazi dutenez, 16 Km. -ko mendi ibilaldi polit bat dago aurrikusia. Gaur Kantantxuko aterpetxean pasako da eta garraiorako autobusa Amezti Mendi Elkaratek jarriko du.

San Joan eguna

Ekainaren 24an, ohiko ardo banaketa egingo da udal arkupeetan 19:30ean.

Jubilatuen eguna

Aurten, eguraldi txarrari eta hotzari aurre egin asmoz, uztailaren 16an burutuko da.

Eduene Albizu

Lander Aperribai irabazle

Elkartu Nahi elkarateak antolatutako txirrindulari lasterketa Lander Aperribai (Elurra taldekoa) irabazi zuen. 70 txirrindulari hartu zuten parte eta 93 kilometro egin behar izan zituzten. Bigarrena Alberto Merino (Muebles Ordizia) izan zen eta hirugarrena Eneko Elozegi (Iberdrola). Taldekako txapela Muebles Ordiziak irabazi zuen.





IX. Gerriko Ikerlan Sariketa

Goierriko Euskal Eskolak, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeak antolatutako Gerriko Ikerlan Sariketa gaur, ostirala, izango da Lazkaoko Udaletxeko Areto Nagusian arratsaldeko zortziretan.

IX. Ediziora aurkeztutako lan bakarraren izenburua honako hau izan da: *Goierriko hizkeraren kokapenerako. Goierriko hizkera Toloserriko hizkerarekiko harremanetan: zenbait ezaugarrien nolokotasunaz eta hedaduraz*. Ikerlan honen egilea Irene Hurtado Mendieta da. Sodupeko biztanle honek lehenengo saria lortu du; 500.000 pezeta, ikur artistikoa eta lanaren argitarapena alegia.

Ikerlan hau aztertzeaz arduratu diren epaimahaikideak bi izan dira: Luix Mari Mujika, zeina filologoa, idazlea eta EHUKO irakaslea izateaz gain Euskaltzaindiko Literatura Batzordeko kidea den; eta Xabier Kaltzakorta, hau ere filologoa eta Deustu Unibertsitateko irakasle iza-

teaz gain, Euskaltzaindiako urgazlea eta Herri Literatura Batzordeko kidea da. Zuzendari zientifikoa Joxemartin Apalategi izan da eta koordinatzailea, berriz, Mari Joxe Madariaga.

Talde hau izan da Irene Hurtado Mendieta lanaren funtsezko egitura begiratzeko ardura izan duena. Alde batetik, edukiaren zientifikotasuna izan da aztergai, hau da, ea ikerlana dokumentatua den, gaurkotutako metodologia ongi adierazi eta erabiltzen duen, agertzen diren datu guztiak eta bakoitza nondik jaso diren argi eta garbi azaltzen duen eta tesia zehazki ematen duen. Bestalde, derrigorrezkoa da ikerlan bakoitza dagokion material grafikoz eta bibliografiaren hornitua izatea. Eta azkenik, euskararen erabileraren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko hausnarketa egin da. Ikerlana 2000leko apirilera-ko prestatuko da.

Elordi Garcia



Hiru lazkaotar futbol torneo infantilean garaile

Ruben Casado, Xabier Alonso eta Enetz Agirre lazkaotarrak zazpi euskal probintzien torneoan parte hartu zuten Oreka Hernani taldean. Hernaniko talde honetako partaide diren hiru lazkaotar hauek, beste taldekideekin batera, Donibane Lohizunen jokatu zuten finala Aviron taldearen aurka.

Zazpi euskal probintzien torneo honetan 32 taldek parte hartu zuten, beraien artean Atletiko Bilbao eta Donostiako Futbol eskolakoak. Beraz, garaipena ez da erraza izan. Baina azkenean lortu dute garaipena. Hor ikus ditzakegu argazkian hiru lazkaotar gazte hauek finala jokatu ondoren lortutako sariarekin.

Udal liburutegiko udako ordutegia

Ekainaren 21etik aurrera Udal liburutegia goizez bakarrik irekiko da, goizeko 10etatik 13:00ak arte. Larunbat goizetan ere itxita egongo da.

Jaietako moztarrotuen argazkiak

San Prudentzio jaietan moztarrotuta argazkiak atera eta beraien kopien eskaera Udaletxean egin zituztenei adierazten zaie, argazki horien kopiak Udaletxean daudela jasotzeko.

iBAi ONDO



AROTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurriara

Mota guztietako arotzegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

TUTENKI

AHOLKULARITZA

Elosegi, 16

☎ 943 16 23 93

LAZKAO

Aholkularitza juridikoa,
fiskala, laborala,
kontablea...

Auto EASO



Ibabe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955



GESTORIA Biok

Errenta

aitorpenak

egiten dira

Goierri, 12

behea

ORDIZIA



943 88 44 00

943 88 12 58

Sanjoanak

● Arrantza txapelketa.

Asier Izeta geratu zen irabazle 3 amuarrain aterata. 2. Jon Agirrek egin zuen (2 amuarrain), 3. Mikel Caballerok (2 amuarrain) eta 4. Aitor Arostegik (2 amuarrain). Guztira 9 herritarrek parte hartu zuten.

● **Bola txapelketa probintziala.** Xepeño Agirrek irabazi zuen saioa 6 botalditan 36 birla jota. 3. Jokin Izagirik egin zuen eta 4. Jexux Mari Intxaustik.

● **Toka probintziala.** Antonio Agirre geratu zen irabazle 24 botalditatik 13 txapa jota. 22 lagunek parte hartu zuten.

● **Herri-kirolak.** San Joan egunean, gazteak helduen kontra. Gazteetan aizkoran Iñaki Azurmendi arituko da, trontzan Imanol Intxausti eta Joxe Mari Intxausti, koskoletan Asier Goiburu, txingatan Koldo Muñoa eta korrikan Iban Berasategi. Helduen aldetik, aizkoran Jabier Eloorriaga, trontzan Jexux Mari Intxausti eta Iñaki Intxausti, koskoletan Xanet Garmendia, txingatan Antonio Agirre eta korrikan Iñaki Artola.



Korpus eguna

San Joan bigarreanean izango da aurtengo Korpusetako meza (11:00) eta prozesioa. Argazkian kaleguneko aldarea jartzeaz arduratzen diren herritarrak.

Futbola: ekainaren 30ean zita

Segura Futbol Taldeko kategori ezberdinetan denetik gertatu da pasa berri den denboraldian. Preferentekoek mailari eutsi egin diote. Jubenilak ohorezko ligatik lehen mailara jaitsi dira. Kadeteak lehen mailatik 2.era jaitsi dira. Infantilak, berriz, ohorezko ligara igo dira.

Bost herritarrek utzi. Talde nagusiari dagokionez, urterik gehiena daramatenek futbola uztea erabaki dute. Jon Ander Hombrek 2.A. mailako Beasainen jokatu du. Momentuz, jarraitzeko asmoa dutenak, Xabier Alustiza, Xanet Garmendia eta Imanol Intxausti dira.

Ekainaren 30ean zitatuak. Aurrendenboraldiko planaren aurkezpene eta jubenil eta preferente mailako plantilak osatzeko iluntzeko 7,30etan daude geratuak Alustiza futbol zelaietan. Arduradunek esan digutenez jubenil edo preferente mailan jokatzeko interesa duen edozein goierritar ager dadila esandako lekura.



Zaila izango da 00/01 denboraldian hainbeste herritar ikustea preferentean.

Errealak bi infantil fitxatu. Aizkorri futbol taldeko bi infantil beasaindar fitxatu ditu Errealak datorren denboraldian kadeteen mailan aritzeko.

Jubenil onenari trofeoa. Gaur, ekainak 23, Imazenen egingo duten agurreko afarian, Errealaren Txanpolinpe peñak, denboraldiko jokalaria erregularrenari trofeoa emango dio.

Igeriketa ikastaroa

Udalak antolatuta, 3tik 8 urte bitarteko neska-mutikoentzat uztailaren 7an hasita 21era arte, astelehenetik ostiralera 12:00etatik 13:00etara. Ikastaro hau Jokin Elkorok emango du. Momentuz 12 haur daude apuntatuak. Informazio gehiago udaletxean.

Udaleko irekiak 2000

Hauk ere Udalak antolatuta, izena ematen duten neska-

mutikoen adinaren arabera, igeriketa, ibilaldiak, inguruko herrietara irteerak, jolasak, antzerkia eta abar antolatuko dira. Aktibitate hauek uztailaren 3tik 21era burutuko dira, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara. 2tik 10 urte bitarteko haurrentzat daude pentsatuak eta momentuz 38 lagunek dute izena emana. Ekintzen ardu-

radunak Eziko udalekueta-koak eta herriko begiraleak izango dira. Monitore lanetarako, herriko begirale titulu-dunei edo praktikak egin behar dituztenei lehentasuna emango dei udalak. Udaletxean informazio gehiago interesatuentzat.

Joseba Telleria



Oxiña igerilekua

Igerileku txikiko eta handiko zoru eta paretetan baldosa berria jarri orduko irekitzeko asmoa da. Sanjoanak ondorenerako espero da. Aurtun, sarrerak kobratzeko, aldagelak garbitzeko eta tabernako lanak egiteko Maria Rosario Aldasoro, Unai Paredes eta Itxaro Hombrek arituko dira. Abonoak igerilekuan bertan edo udaletxean eskura daitezke.

Etxebizitzak

salgai

➔ Legorretan etxebizitza salgai. Dena berria. 943806404.

➔ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943886834.

errentan

➔ Apartamentua alokagai Laredon. Hondartza ondoan. 943795280.

➔ Urbasa ondoan etxea alokatzen da, asteburu eta oporretarako. 948 539381.

Ibilgailuak

salgai

➔ Mobylette motorra salgai. Egoera onean. Motorrez ondo. 25.000 pezetan. 943162510.

➔ Land Roverra salgai. 88 ligero diesela. BI-AC. 943801107 (Joxe).

➔ Yamaha TZR 50 c.c. motorra salgai. Extrekin. Ongi zaindua. Prezio onean. 667239378.

➔ Opel Astra familiarra salgai, turbo diesela. 50.000 km. SS-AW. 609775000.

➔ Volkswagen Golf GTI autoa salgai. BI-BC matrikuladuna. 943801802. Xabier. 21:30etik 22:00etara deitu.

Animaliak

salgai

➔ Artzai txakurra salgai. 8 hilabetekoa. 943885102.

➔ Setter arrazako txakurkumeak salgai. 943887617.

➔ Setter ingeles txakurkumeak salgai, pedigree oso onekoa. 667 955443. Aitor

➔ Cocker hispaniel ingelesa eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943886164.

opari

➔ Txakurkumeak oparitzen dira. 943883804.

➔ Katakumeak opari. 600 648788.

➔ 4 katakume, 'lehoi txikia' itxurakoak, opari. 15 egun ingurukoak. 943 880402.

➔ Txakurra oparitzen da. Artzai eta arratoi txakurren nahasketa. 943886674.

Bestelakoak

salgai

➔ Movil-home bat salgai, Hondarribiako kanpin batean. 2 logela, jangela, garbigailu eta guzti. Jatorduetan deitu: 943 16 08 53.

➔ Conver 13, karro denda salgai. Bi abantzeekin. Denetik du. Prezio interesgarria. 943886788.

➔ Auto telegidatua salgai. Mega desert racer markakoa. Berria. 10.000 pezetan. 667239378. 3etatik aurrera deitu.

➔ 2 logelako kanpina salgai. 50.000 pezetan. 943 886521.

➔ Negurako egurra, txikituta, nahi baduzu, deitu gauez telefono honetara: 943 161638. Etxetara eramaten da.

opari

➔ 1996. urtetik gaurdainoko Euskaldunon Egunkariak oparitzen dira. Beste euskal aldizkari eta liburu batzuk ere oparituko zaizkio Egunkariak eramaten dituenari. 943 88 90 53.

Lana

➔ Etxeko lanak egin eta adineko bi pertsona zaintzeko pertsona bat behar da. 943889883.

➔ Neska gaztea eta euskalduna behar da tabernan zerbitzari gisa lan egiteko. 943880000.

➔ Emakume euskalduna behar da Beasainen etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 943888735.

➔ Beasainen neska bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. 943888751.

➔ Neska euskaldun bat behar da asteburuetan kamarera bezala lan egiteko, jatetxe batean. 943880044.

➔ Pertsona euskalduna behar da Araman orduka etxeko garbiketari lanak egiteko. 696005643.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzak

2 MANTENIMENDU MEKANIKO
Goierri. Erref.: 32882/2

SOLDEATZAILEA (1. OFIZIALA)
Goierri. Erref.: 34186/4

SUKALDARI LAGUNTZAILEA
Goierri. Erref.: 33618/7

SUKALDARIA
Goierri. Erref.: 33612/2

PISTOLA PINTOREA
Goierri. Erref.: 33826/4

INTERNET ZERBITZUKO ADMINISTRARIA
Donostia. Erref.: 34419/4

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

SEGURAN

LAISTER FAMILIABAKARREKO 12 ETXEBIZITZA

Kalitatea

Diseinua

Paregabeko lekua



ERAKITAKO AZALERA

Beheko solairua: 87,36 m²

Lehenengo solairua: 62,34 m²

GUZTIRA: 149,70 m²

INFORMAZIOA eta SALMENTA:
943 49 38 73

ERAGILEA:

ARIN ERAIKUNTZAK, S.L.

Mamuteko bulegoak, 5. solairua, 6 bulegoa
OIARTZUN

ARKITEKTOA:

as&le
arquitectos asociados

6 HILERAKO EKIPAJEA.



**6 HILERAKO
UKIPEN-LENTEAK**
14.900 PEZETAN BAKARRIK

Eta oparizat **GURPILDUN MALETA** eder bat.

Multi packak honako hauek ditu: bilero aldatzen diren Multilens lenteak bi kaza,
Multisoluzio Bakarren edo Multibio Plusaren 2 gote eta lenteentzako bi kutxatila.

BAUSCH
& LOMB

CIBA
VISION



R.P.S. 16499 zlia.



MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

uda hau ANTZIZAR KIROLDEGIAN

gozatu

j o l a s a l a k i r o l a ? h i h e u



BEASAINGO UDALA



KIROL ARTEA UDA ERAMNEN
erakunde municipal del deporte
EASAIN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioari Foru de Gipuzkoa
Gasteiz eta Kirok Departamentua
Departamento de Juventud y Deporte



ANTZIZAR
KIROLDEGIA